

KIROLEZKO ETA AKTIBITATE FISIKOKO GENERO ESTEREOTIPOAK LANTZEKO, IKUS KULTURA ETA PERSPEKTIBA KRITIKOA GORPUTZ HEZKUNTZAN

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Sarria Areitio, Iñigo

KOZUZENDARIAK: Madariaga López, Itsaso eta Gutierrez Ajamil, Estibaliz.

2020

LABURPENA

Ikerketa lan honek, kirolean, jarduera fisikoan eta Heziketa Fisikoan ematen diren genero estereotipoen azterketan datza. Ikerlan honetan, Heziketa Fisikoko irakasleek begi-bistaz jaso ditzaketen argazki edo irudien analisia egingo da, betiere generoa analisiaren objektu nagusia izanik. Horretaz gain, gehienetan, argazkian edo irudian egiten ari diren hori analisirako objektua izango da. Ikerketa honen helburua, beraz, irakasleek jaso ditzaketen argazki eta irudi horietan agertzen diren kirol edo jarduera fisikoko generozko estereotipoak nolakoak diren aztertzea eta gutxi lantzen den perspektiba kritikoaren beharra nabarmentzea izango da. Guzti hori aztertu ahal izateko bi ikerketa-tresna jarri dira martxan, alde batetik, Mungiaiko Bentades Ikastetxeako 6.mailako 24 ikasleko ikasgela batekin, Erwin Wurm artistaren “*One Minute Sculptures*” obraren moldaketa praktikoa bat burutu da eta bestetik, 90. hamarkadako eta 2000.hamarkadako Heziketa Fisikozko testu liburuen irudiak aztertu dira. Analisi honi erreparatuz, aipatutako ikuspuntu kritikoaren beharra, ikus kulturaren eraginaren ondorio bat dela esan daiteke, hala nola, ikus kulturak hainbat generozko estereotipo transmititzen dizkigu eta. Mezu estereotipatu horiek gehienetan, curriculum ezkutuaren bitartez transmititzen dira, beraz, ez dira ikusgaiak eta horren ondorioz, pedagogia kritikoaren bitartez aztertzea praktikoa izan daiteke. Horretarako, Heziketa Fisikoa, baliabide eraginkorra izan daiteke, ikasgai honetan, gizakiaren gorputza hezten baita. Beraz, gorputza modu fisiko eta psikologiko sozial batean hezteko testuinguru ezinhobea izan daiteke ikasgai hau.

Hitz-gakoak: Ikus kultura, generozko estereotipoak, Heziketa Fisikoa, curriculum ezkutua, pedagogia kritikoa.

RESUMEN

Este trabajo, consiste en analizar e investigar los estereotipos de género que se dan tanto en el deporte, como en la actividad física o en las clases de Educación Física. En este trabajo, se analizarán las imágenes o fotos que podría percibir percibir visualmente un profesor de Educación Física, siendo el género el objeto principal de análisis en todo momento. A parte, en muchas ocasiones, lo que el humano este haciendo en esa imagen o foto será objeto de análisis. El objetivo de este análisis, entonces, será analizar que estereotipos de género deportivos contienen las imágenes que puedan percibir los profesores y remarcar la necesidad de trabajar una pedagogía poco común en la práctica de Educación Física, la pedagogía crítica. Para poder analizar esas cuestiones, se han llevado a cabo dos herramientas de análisis. Por una parte, se ha puesto en marcha una adaptación de la obra “*One Minute Sculptures*” del artista Erwin Wurm con una clase de 6.primaria de la escuela Bentades Ikastetxea. Por otro lado, se han analizado las imágenes de dos libros de texto de

Educación Física, uno de la década de los 90 y otro de principios del siglo XXI, exactamente del año 2006. Basándonos en este trabajo de análisis, la necesidad de trabajar este punto de vista pedagógico crítico surge como consecuencia de la cultura visual, y es que, esta cultura visual nos transmite muchos estereotipos de género. Estos mensajes estereotipados, se suelen transmitir mediante el currículum oculto, por lo tanto, son invisibles y a causa de esa invisibilidad, puede ser práctico y útil analizarlo desde una pedagogía crítica. Para ello, la Educación Física podría ser una herramienta eficaz, ya que esta asignatura sirve para el desarrollo del cuerpo humano. Por lo tanto, sería un contexto idóneo para desarrollar el cuerpo física y psicológica-socialmente

Palabras clave: Cultura visual, estereotipos de género, Educación Física, currículum oculto, pedagogía crítica.

ABSTRACT

This research study, consist in analyze and investigate the gender stereotypes that could be in sports, physical activities or Physical Education. In this research, will analyze some images and photos that a Physical Education teacher could percieve visually, always being the gender the principal target of study. Apart from that, sometimes the situation of the human in each image or photo will be object of study also. The objective of this analysis will be, to analyse what kind of gender stereotypes could be transmitted by those images and also to emphasize the need to work on a nowadays not comun pedagogy in Physical Education, that is the critical pedagogy. For these research, it have been used two analisis tools. On the one hand, it has been used a modification of the work that is called "*One Minute Sculptures*" by the artist Erwin Wurm. That modification has been used with a class of 6th grade of primary in Bentades Ikastetxea school. On the other hand, it has been analyzed two textbooks about Physical Education. One book was from the ninety's decade and the other one was from the beginning of XXI. century, exactly from the 2006 year. Taking this research in account, this need to work on the critical pedagogy born as a consequence of the visual culture. In fact, this visual culture give us some gender stereotypes. Those ones, usually are transmitted by the hidden resume, so they are not able to see. Because of that, it could be practical to work on those ones by the critical pedagogy. For that work, the Physical Education could be a effective tool, because the objective of this subject is to develop the human's body. So, this course could be the best context to develop the human body physically and psychological-socially

Keywords: Visual culture, gender stereotypes, hidden resume, Physical Education, critical pedagogy.

AURKIBIDEA

0. Sarrera	4
1. Justifikazioa	6
2. Marko teorikoa	7
2.1 Irudia eta ikusizko kultura	7
2.1.1 Ikus kultura eta bere balio hezigarria	7
2.1.2 Genero estereotipoak eta ikus kultura	8
2.2 Heziketa Fisikoa	11
2.2.1 Heziketa Fisikoa , autokontzeptua eta autoestima	11
2.2.2 Konpetentzia motorra Heziberrin	12
2.2.3 Curriculum ezkutua	13
2.3 Heziketa Fisikoaren garapena ikus kultura eta perspektiba kritikoaren bidez	15
2.3.1 Irakaslearen funtzioa	15
2.3.2 Perspektiba kritikoa	16
3. Metodologia	17
3.1 Helburuak	18
3.2 Hipotesiak	19
3.2.1 Hipotesi orokorra:	19
3.2.2 Gorputz Hezkuntzako liburueta argazkien hipotesiak:.....	19
3.2.3 Saio praktikotetan ateratako argazkien hipotesiak:	19
3.3 Ikerketa-tresnak.....	20
3.3.1 Gorputz Hezkuntzako testu liburuen analisia.	20
3.3.2 Erwin Wurm artistaren obraren moldaketa.	20
3.4 Metodologia irizpideak.....	22
3.4.1 Irudiak aukeratzeko irizpideak	22
3.4.2 Kategoriak aukeratzeko irizpideak eta esanahia	23
4. Ikerketaren emaitzak	27
4.1 Liburuaren datuetako emaitzak	27
4.1.1 1990. hamarkadako liburuaren datuetako emaitzak.....	27
4.1.2 2000. hamarkadako liburuaren datuetako emaitzak.....	32
4.2 Liburuaren arteko konparaketa.....	37
4.3 Saio praktikotik lortutako datuen emaitzak.....	37
5. Emaitzen laburpena	41
6. Ondorioak	42
7. Hausnarketa eta hobekuntza proposamenak	44
8. Bibliografia	46
9. Eranskinak	48

0. Sarrera

XXI.mende honetan, informazioa hainbat modutan iristen zaigu. Izan ere, historian zehar eman diren aurrerapen teknologikoak direla eta informazioa bidaltzeko eta eskuratzeko moduak era nabarmen batean areagotu dira. Hori dela eta, informazioa jasotzeko hainbat medio daude. Horien artean, aldizkariak, egunkariak, liburuak, telebista, irratia, mugikorrak, ordenagailu etab. Gailu edo medio bakoitzaren bidez, gizakiok nahi erako informazioa lor dezakegu, hau da, edozein gairi buruz jakin dezakegu.

Informazio hori, era batean edo bestean gizartearen usteek sortzen dute, hau da, ideologia, estereotipo edo aurreiritzi batzuk daude informazio horren barnean eta horiek nahi eta ez ohartu, gizakiongan eragina izaten du. Hori dela eta, gizakion usteak, iritziak eta nortasuna, kanpoko informazioarekin osatuta dagoela esan daiteke. Baliteke, batzuegan beste batzuegan baino eragin handiagoa izatea informazioak bidaltzen dizkigun ideal edo estereotipo horiek, baina egia da guztiongan eragiten duela.

Generoari dagokionez, medio horien bitartez transmititzen den informazioa estereotipatuta dagoela esan daiteke. Hau da, gizonezkoei eta emakumezkoei buruz "saltzen" zaizkigun irudiak (irudi fisikoak, lanpostuen irudiak, eginkizunen irudiak...) rol batzuen menpe daude. Genero rol hauek, gizarteko eginkizunetan ikusteaz gain, beste hainbat eremuetan ikus daitezke baita ere, hala nola, kirol eta aktibitate fisikoan. Alor honetan, gizonezkoa historian zehar nagusi izan dela eta emakumezkoa bisualizazio gutxi izan duela esan daiteke. Hori dela eta, gizonezkoa kirolean eta aktibitate fisikoan ahaldun bezala ikusi da beti. Gainera, izate fisikoari erreparatzen badiogu, gizonezkoak indartsu, gihartsu eta potentzia eta indar beterizko irudia aurkezten dute eta emakumezkoek aldiz, elastikoa eta argaltasunez beteriko irudia. Komunean daukaten gauza bakarra, edertasuna eta irudi perfektua adierazi behar dutela da, uste estereotipatua hau baita ere.

Esan den bezala, kanon horiek txikitatik jasotzen dira hainbat medioen bitartez eta horien lanketa eta horiei buruzko hausnarketa eztabaidaezina et beharrezkoa dela esan daiteke. Gizakiok, orokorrean, hauek aztertzeko eta nortasuna sortzeko bi tresna nagusi ditugu, batetik familia eta bestetik, eskola. Izan ere, baloreak, nortasuna, etab eskolan eta familian eratzen baitira gehienbat. Eskolari dagokionez, bizitzako tarte handi eta garrantzitsuena bertan bizitzen dela esan daiteke. Hori dela eta, bertan ematen diren ikasketak esanguratsuak izatea ezinbestekoa da, bai eduki zein pentsamendu eta nortasun sorketaren aldetik. Hori dela eta, ikasgai guztiak aurretik aipatutako horretan ahalik eta aberatsagoak izan beharko dira.

Lan honetan, Gorputz Hezkuntzako (hemendik aurrera Gorputz Hezkuntza, GH bezala agertuko da) ikasgaiak eta kirolezko genero estereotipoetan jarriko da arreta. Gradu Amaierako lan hau aurrera eramateko oinarri nagusienak, ikaslearen inspirazio propioa, azkeneko praktikaldi zentruko (Mungiako Bentades Ikastetxea) tutorearen laguntza eta Erwin Wurm artista austriarraren obra (One Minute Sculptures) izan dira. Abiapuntu horiek kontuan izanda, ikerketa lan bat aurrera eraman da, non, helburua, Gorputz Heziketako saio praktikoa eta, ikasgai honetako testu liburuetan ematen diren eta GH-ko irakasleek jaso ditzaketen kirol eta jarduera fisikoetako generozko estereotipoak aztertzea izango da, Gorputz Heziketako saioetan ikasleekin ikus kultura perspektiba kritikoaren bitartez estereotipo horiek lantzearen beharraz ohartarazteko eta batez ere, perspektiba kritikoaren beharra nabarmentzeko. Horretaz gain, GrAL honen helburua, Gorputz Heziketako irakasleek jasotzen duten informazio bisuala aztertzea eta horien aurrean perspektiba kritiko bat izatearen beharra azpimarratzea izango da. Izan ere, lehen esan dudak bezala, irakasgai guztiak aberatsak izan behar baitira bai eduki zein pentsamendu eta nortasunaren sorreran. Hori sortu ahal izateko, ezinbestekoa izango da modu kritiko batean egitea.

Helburu horiek lortu ahal izateko, bi ikerketa tresna jarri dira martxan. Alde batetik, GH-ko saioetan ematen diren kirol eta aktibitate fisikoetako generozko rolak aztertzeko, Mungiako Bentades Ikastetxeako 6.mailako 24 ikasleekin Erwin Wurm -en obraren moldaketa eraman da aurrera. Azterketa tresna honetan, ikasleek, GH-ko material gelan zeukaten materialaren laguntzaz, minutu bateko eskultura bat sortu behar zuten, non, kirolezko edo aktibitate fisikoetako egoera edo egunerokotasunean eman daitekeen egoera bat sortu behar zuten. Behin hori eginda, irakasleak, gorputzutako eskulturaren argazki bat ateratzen zuten eta ikasleek egiten zuten hori txantilo batean adierazten zuten. Bestetik, GH-ko testu liburuetan ematen diren kirol eta aktibitate fisikoetako generozko rolak aztertzearen helburua lortu ahal izateko, praktikaldiko tutorearen eta beste iturri baten laguntza behar izan da, testu liburuak lortzeko, alegia. Liburu horien irudi gehienak aztertu dira, izan ere, alde batetik generoa eta bestetik, egiten ari ziren kirol edo aktibitate fisikoetako egoera kontuan izanik.

Bukatzeko, eta lanera sarrarazteko asmoarekin, GrAL honetako puntuen nondik norakok azalduko dira laburki. Lehenengo puntuak, justifikazioan, gai hau aukeratzearen eta ikerketa hau aurrera eramatearen argudiaketa laburra egiten da. Honen ostean, marko teorikoan, lan honen testuinguru teorikoa sortuko da, jakin beharreko edukiak, terminoak eta informazioa transmititzeko asmoz. Laugarren puntuak, metodologian, ikerketa prozesuaren nondik norakoak azalduko dira, hala nola, zein den erabiliko metodologia mota, zeintzuk diren lortu nahi diren helburuak, ikerketa aurretiko hipotesiak eta ikerketa tresnak. Hurrengo pausuan, hau da bosgarren puntuak, ikerketa tresnen bitartez lortutako emaitzak batu, deskribatuko

dira. Seigarren puntuak emaitzak argi uzteko nahiarekin, horiek laburtuko dira. Hurrengoko puntuak, ondorioetan, emaitzak eta hipotesiak alderatuko dira, bertatik zenbait ondorioztapen lortzeko asmoz. Azkeneko puntuak, hausnarketa pertsonala egingo da, gainera, ikerketa honetan hobetu daitezkeen puntuak buruz eta lan honen izan ditzakeen aldaerei buruz hitz egingo da.

1. Justifikazioa

Gaur egungo gizartean, gizakiok ikus-entzunezko eta soilik ikusgarria den informazio asko erabili, produzitu eta kontsumitzen dugu. Izan ere, gure bizitzako esparru guztietan, hala nola, kalean, etxean eta nola ez, eskolan, aparatu teknologikoren bat edo ikusgarria den beste objekturen bat aurki dezakegu (liburuak, posterrak, kartelak...). Nahi eta ez, informazio guzti hori ikus zentzumenen bitartez sartzen da gure barnean eta modu batean edo bestean gure nortasunean, usteetan eta ondorioz, jarrera eta egoeren aurrean parte hartzeko moduan eragina dute. Beraz, eskola eta familia gizakion hezkuntzaren lehen urteetan eragin gehien dutenak direla kontuan hartzen badugu, ukazina izan beharko litzateke esparru bi hauetan aurretik aipatutako informazioaren azterketa eta hausnarketa kritiko bat egitea. Kasu honetan, eskolak izan beharko lukeen esku-hartze edo ikuspuntu pedagogikoan zentratuko gara, Hezkuntza baita lan honen esparrua, alegia. Aurreko esaldietan esandakoaren harira, nahiz eta haur, ume eta gazteek eskolan informazio horri buruz hausnartzeko aukera izan dezaketean, nagusientzat eta kasu honetan irakasleentzat, aukera paregabea izan daiteke baita ere.

Nire esperientzian oinarrituta, hiru praktikaldi betetzeko aukera izan dut. Hori dela eta, aldi horietan ikusteko, aztertzeko eta nola ez ikasteko aukera izan dut. Gainera, ikasgai baten baino gehiagotan parte hartzeko aukera izan dudanez, ikasgai bakoitzean zein estrategia, baliabide edota metodo erabili daitezkeen ikusi ahal izan dut. Beraz, esan daiteke ikusi dudana guztietatik zeozer ikasi dudala. Hala ere, Gorputz Hezkuntzan lan egiteko moduari jarri diot arreta gehien. Izenak dioen bezala, Gorputz Hezkuntza edota Heziketa Fisikoan, gorputzaren heziketan oinarritzen da eta hori izan da praktikaldi horietan gehien ikusi izan dudana. Horretaz gain, liskarren edo gatazken aurrean esku hartzeko modu praktikoen inguruan baita ere zenbait ikaspen jaso ditut, egunero ematen baitira horrelakoak, alegia. Hala ere, eta hona hemen nire justifikazio nagusia, jarrera kritiko eta pentsamendu kritikoaren eraikuntzan arreta gutxiegi jartzen dela ikusi izan dut, bai irakasleek euren buruarekiko egiten duten hausnarketa autokritikoa zein ikasleekin eta ikasleen jarrera autokritikoa eraikitzeke momentuan.

Hortaz, kontuan hartuta informazioa jasotzeak sortzen dituen behar horiek eta eskolan informazio horri hausnarketa gutxi egiten zaiola, gaur egungo egoera eta azken bi hamarkadetako egoera aztertzea erabaki izan dut. Batez ere, jasotzen dugun informazio horrek generoaren aldetik nola eragiten duen aztertzeko eta pedagogian kritikotasuna lantzeko beharra bermatzeko.

2. Marko teorikoa

GrAL honi hasiera emateko eta hurrengo orrialdeetan zehar hitz egingo denari buruzko ideia eta testuinguru bat sortzeko, hurrengo marko teorikoa garatu da. Marko teoriko honetan, irudia eta ikusizko kultura, gaur egungo Heziketa Fisikoa eta honen garapena ikus kulturaren bidezko gaiak elkar erlazionatuko dira, gai horien bakoitzean, zenbait azpigai azalduz.

2.1 Irudia eta ikusizko kultura

2.1.1 Ikus kultura eta bere balio hezigarria

Gaur egungo ikus-entzunezko aurrerapen teknologikoek informazio asko transmititzen digute herritarroi. Informazio hori, batzuetan objektiboa izan daiteke eta beste batzuetan guztiz subjektiboa eta azpi-mezuekin batera joan daiteke. Azpi-mezu horiek, orokorrean, gizarte uste orokortuak eta gizarteak sortutako iritziekin lotura dute eta transmititzeko modu azkarrena eta ikusgarriena irudiak, argazkiak, bideoak eta horrelako ikus baliabide modukoak dira. Gaur egungo gizartean, irudiak edozein lekutan ikus ditzakegu, hala nola, liburuetan, ordenagailuetan, telebistan, paperezko edo modu digitalean dauden aldizkari edo egunkarietan...Azaldu den bezala, irudi horiek uste orokorrak sortzen dituzte jendearengan.

Esan den bezala, aurrerapen teknologikoak gaur egun oso nabariak dira. Hori dela eta, komeni da ikus kulturaren terminoa ulertzea. Ikus kultura, heziketa artistikoaren domeinu berria da eta arte bisual guztiak hartzen ditu bere barne: arte ederrak, publizitatea, bideoak, pelikulak, telebista, eraikuntzen diseinuak, ordenagailuko edo beste eredu batean produzitutako irudiak etab. (Freedman, 2006). Bestetik, hauek dira Maria Acaso-k El lenguaje visual testuan adierazitako hitzak (Acaso 2009 zitatuta) ikus kultura definitzeko:

conjunto de representaciones visuales que forman el entramado que dota de significado al mundo en el que viven las personas que pertenecen a una sociedad determinada. La cultura visual es el conjunto de productos visuales que pueblan nuestra cotidianidad y dan origen a la identidad del individuo contemporáneo.(2006,18.or.)

Hori dela eta, ikus kultura irakastea, gaur eguneko errealitateei erantzuna ematea deritzo. Hau da, ikus kultura irakastea, arte bisualak interpretatu eta produzitzean datza, baina ez soilik arte ederrekin zerikusia dituzten horiekin, baizik eta egunerokotasunean aurkitzen ditugun material bisual horiekin baita ere (Freedman, 2006). Hala ere, ikus kultura irakatsi eta honetan hezi ahal izateko Freedman-en hitz hauek kontuan eduki beharko dira:

es muy improbable que el proceso de aprender a crear arte visual y a responder adecuadamente a sus complejidades, ocurra sin guía. A menos que las personas reciban instrucción, seguramente nunca llegarán más allá de la superficie de las imágenes y de los objetos diseñados que ven cada día. (2006, 19.or.)

Kasu honetan, Freedmanek, pertsonaiei egiten die erreferentzia, beraz, testuingurura eramanda, bai irakasle zein ikasleentzat zuzenduta joango zen aurreko hitz horiek.

Ikus kultura irakastearen nahi hau, gaur eguneko ondorio baten eraginez sortu izan da, izan ere, gizakiok "ciego vidente"-ak (gaztelertatik lortutako terminoa) garela esan daiteke, hau da, milaka irudi kontsumitzeko gai izatea baina bat bera ere ikusi barik. Hori dela eta, ikus kultura irakastearen helburua, "ciego vidente" izatetik "vidente crítico" izatera pasatzea izango da (Acaso, 2009).

2.1.2 Genero estereotipoak eta ikus kultura

Atal honekin hasi baino lehenago ezinbestekoa da generoa eta sexua desberdintzea. Horretaz gain, ezinbestekoa izango da baita ere, estereotipoaren eta genero estereotipoen terminoa ulertzea. Generoa zer den ulertzeko, hainbat definizio kontrastatuko dira. Butler-ek definizio hau erabili zuen:

es el aparato a través del cual tiene lugar la producción y la normalización de lo masculino y lo femenino (...) El género es el mecanismo a través del cual se producen y se naturalizan las nociones de lo masculino y lo femenino.. (2006, 70.or.)

Revilla Fajardok (2013) hainbat autoreek generoari buruz egindako definizioak kontrastatu eta gero, honela definitzen du generoa: "se define como un constructo social que pretende dar cuenta de las formas de actuar de los seres humanos en su apoyo a una normatividad de índole binaria, acorde al sexo (hembra o macho) del individuo" (2013, 10.or.).

Generoaren terminoarekin bukatzeko, generoa, gizarteak sortutako , eta emakumeen eta gizonezkoen oinarri biologikoan jaiotza duten, desberdintasunei egiten die erreferentzia. Bestetik, sexua, gizonezkoen eta emakumezkoen artean dauden desberdintasun biologikoei egiten die erreferentzia (Espinar-Ruiz, 2009), Hortaz, bi terminoak alderatuta, ulertu behar dugu, generoa, gizarteak sexu bakoitzari egokitzen dion rol, itxaropen, funtzio, balore etabarrei egiten diola erreferentzia (Espinar-Ruiz, 2009) eta sexua aldiz, ezaugarri biologikoetan oinarritzen dela.

Aipatu den bezala, bi termino horietaz gain, estereotipoak zer diren eta genero estereotipoak zer diren ulertzea ezinbestekoa izango da baita ere. Estereotipoak, aurreiritzi orokortu bat bezala definitzen da, zeinetan, prozesu mental baten ondorioz jasotako informazioa antolatuta egiten da, geroago talde bati buruzko irudi mental sinplifikatu bat sortzeko. Estereotipoak kulturatik ikasten dira eta normalean, tradizio kulturalak sorrarazten dituzte (Fernández Poncela, 2011).

Estereotipoak beraz, hainbat taldeei buruz izan daitezke, kontuan izanda maila soziala, estatus ekonomikoa, arraza, jatorri geografikoa, generoa, sexua etab. Hala ere, lan honetan genero estereotipoetan jarriko da arreta. Generozko estereotipoak, sexu, balore eta jarrera zehatz batzuetan oinarritu eta gero sortutako esleipen soziokulturalak dira, historikoki eta sozialki sortuak izan direnak (Fernández Poncela, 2011). Fernandez Poncelak (2002) Estereotipos y roles de género en el refranero popular. Charlatanas, mentirosas, malvadas y peligrosas. Proveedores, maltratadores, machos y carnudos obran (Fernández Poncela, 2011 zitatuta), estereotipoen arabera, rol batzuk sortzen direla adierazten du. Bere ustez, rola pertsona batek egin behar dituen eginbeharrekin edo pertsona batetik espero den horri deritza. Gainera, generozko rolak, generozko estereotipoen ondorioz sortzen dira eta pertsona bakoitzak duen sexuaren arabera, eginbeharreko, funtzio eta jarrera zehatz batzuk izatea espero da.

Genero estereotipoak bizitzako esparru guztietan ematen dira, bai lantegian, etxean, eskolan, kalean, dendetan...Hori dela eta, gizakioi esleitzen zaizkigun genero estereotipo fisikoak (ilea, gorputz mota, izaera..) eta aktibitate fisikoari edo kirolari erreparatuta esleitzen zaizkigun genero estereotipoak zeintzuk diren azalduko dira. Horiek adierazteko, testuinguruan jartzea ezinbestekoa izango da. Hori dela eta, Braidottik (2005) Metamorfosis. Hacia una teoría materialista del devenir testuan (Revilla Fajardo, 2013 zitatuta) generoa, “falocentrista-teleológica-europea” izeneko ikuspuntu eta tradizio batean oinarritzen dela dio. Horretaz gain, ikuspuntu hori, Descartesen tradizio filosofikoarekin erlazioa duela adierazten du, non, bi genero bereizten diren (maskulinoa/femeninoa; emakumezkoa/gizonezkoa).

Ikuspuntu hori kontuan izanda, generozko estereotipo fisikoak azalduko dira. Horretarako, Ruiz Ulaciaren (2015) eta Sanz Gonzálezen (2013) Gradu Amaierako Lanak (hemendik aurrera Gradu Amaierako Lana, GrAL bezala agertuko da) erabiliko dira. GrAL-etako emaitzetan ikusten den bezala, euren ikerketako ikasleek emakumezkoei ile luzearekin irudikatzen dieten eta gizonezkoei, aldiz, ile motzarekin.

Crawford eta Unger-ek (2004) Women and gender obran (Blández Angel, Fernández García eta Sierra Zamorano, 2007 zitatuta) generozko estereotipoak aktibitate fisikoan izan dezakeen eraginari buruzko ikerketatik ateratako ondorio esanguratsuenak hauek direla adierazten dute: bi eredu mota atera dira, alde batetik, eredu instrumentalak (maskulinitatearekin zerikusia dutenak) rol aktiboekin eta mundua modu eraginkor batean manipulatu dezakeen pertsona edo ereduarekin erlazionatzen dena, eta bestetik, eredu afektibo – adierazkorrak (feminitatearekin zerikusia dutenak) rol afektibo eta existentzialekin zerikusia duten eta besteekiko garrantzia adierazten duen pertsonekin erlazionatzen dena. Honek eredu honetan deribatzea sortzen du, gizonezkoa fisikoki indartsua ikustea eta emakumezkoa fisikoki pasiboa (Blández Ángel, Fernández García eta Sierra Zamorano, 2007). Horretaz gain, Blández Ángel, Fernández García eta Sierra Zamoranok (2007) aktibitate fisikoari dagokionez, gizonezkoen eta emakumezkoen nahiak desberdinak direla ondorioztatu dute. Izan ere, emakumezkoek, erritmoarekin erlazionatutako aktibitateak, igeriketa, saskibaloia, boleibola eta padela nahiago dute eta gizonezkoek, aldiz, futbola da gehien gustatzen zaiena eta horretaz gain, errugbia, saskibaloia, eskubaloia,...Bukatzeko, Blández Ángel, Fernandez García eta Sierra Zamoranok hauxe ondorioztatu dute:

Así, las actividades físicas que requieren capacidades de 'fuerza', 'resistencia' o son más 'activas', 'agresivas', o 'de riesgo' (por ejemplo: rugby, fútbol, (...) las vinculan al género masculino. (...) actividades más 'tranquilas' o relacionadas con el 'ritmo', la 'expresión', la elasticidad, la flexibilidad o la 'coordinación' (por ejemplo: yoga, danza, baile, aeróbic, voleibol, gimnasia artística las vinculan al género femenino. (2007, 16.or.)

Azkenik, Moya Mata, Ros Ros, Bastida Torrónategi eta Menescardi Royuelak (2013) egindako ikerketaren emaitzek adierazten duten bezala, gizonezkoek talde kiroletan eta egoera fisikoarekin erlazionatutako kiroletan eta emakumezkoak, aldiz, gaitasun koordinatiboko eta jarduera osagarrietan nagusi dira.

2.2 Heziketa Fisikoa

2.2.1 Heziketa Fisikoa , autokontzeptua eta autoestima

Gure gaia Heziketa Fisikoarekin eta kirolarekin zerikusia duenez, autokontzeptua esparru horretan zer nolako izaera duen aztertuko da, betiere kontuan izanda nola eragiten duen emakumezkoetan eta gizonezkoetan.

Autokontzeptua arlo honetan nola eragiten duen azaldu baino lehen, ezinbestekoa izango da Heziketa Fisikoaren definizio bat izatea. Heziketa Fisikoa urteetan eta mendeetan zehar zenbait eraldaketa izan ditu. Izan ere, hainbat ikuspuntu desberdinetan egon da zentratuta, gimnastikan, militaritzan,..eta betiere gorputza xede eta ikuspuntu soila izanik. Gaur egun, bi ikuspuntu desberdin bereizten dituzte López Pastor eta Gea Fernández-ek (2010). Bi autore hauek, Tinning (2006) , eta López , Monjas eta Pérez-ek (2003) egindako lanetako informazioa erabili dute hurrengo bi Heziketa Fisikoko diskurtsoak definitzeko.

López Pastor eta Gea Fernández-ek (2010) errendimenduko diskurtsoa eta parte hartzeko diskurtsoa bereizten dute. Lehenengoan, errendimendukoan, razionalizazio tekniko batean oinarritzen dela diote, non, Heziketa Fisikoaren xedea egoera fisikoaren eta gaitasun motorren garapena izango den. Helburu hori, kirolezko talentuak lortzeko nahiarekin bilatzen da. Eredu honetan, egoera fisikoarekin eta gaitasun motrizekin erlazioa duten edukia landuko dira eta emaitzetan oinarrituko da. Lan hau, bestetik, parte hartzean oinarritzen den diskurtsoarekin, identifikatzen da, arrazionalizazio praktikoan oinarritzen da. Eredu honetan, Heziketa Fisikoaren xedea bat baino gehiago izango dira, hauek izanik: gizakiaren garapen integrala, gorputzari eta motrizitateari dagokionez eta hauek erabiliz, kultura fisikoaren eraketa, esperientzia motor positiboak garatzea, autonomia sortzea, aktibitate fisikoak ohiturak sortzea eta motrizitatearen eta gorputzezko inplikazioetan lan egitea pertsona libre eta autonomoak sortzeko. Beste alde batetik, Hernández Álvarez-ek honela definitzen du Heziketa Fisikoaren Didaktika:

la didáctica de la educación física se construye como una ciencia teórico-práctica, cuyo conocimiento se sitúa en torno a un objeto de estudio construido por los procesos de enseñanza y aprendizaje de las manifestaciones culturales del movimiento. Su intención es la de llegar a explicarlos (teoría) e intervenir en ellos (práctica) , con la finalidad de contribuir al desarrollo personal y social de los sujeto, desde una perspectiva orientada a la emancipación. (2004, 39.or.)

Autokontzeptua eta autoestima baita ere, gorputzarekin dute zerikusia, hala nola, bakoitzaren gorputz ikuskerarekin. "El autoconcepto, (...), se entiende como la imagen que uno tiene de sí mismo y que se encuentra determinada por la acumulación integradora de la información tanto externa como interna" (González-Pineda, Nuñez Pérez eta González-Pumariega, 1997, 272.or.). Autokontzeptua sortzeko erabiliko diren elementuak, kultura, testuingurua, bere inguruko pertsonak, bere kulturatik jasotako ohiturak eta orokorrean gizakia inguratzen duten kanpo eta barne-egoerak izango dira (Panesso Giraldo eta Arango Holguín, 2017).

Autoestima, bere aldetik, autokontzeptuan niri buruz egindako balorazio horren ondorioz sortzen da, hau da, autoestima autokontzeptutik ondorioztatzen da eta balorazio hori egin ahal izateko, bakoitzak berari buruzko uste, ideia edota ezaugarri propioak eduki behar ditu (Panesso Giraldo eta Arango Holguín, 2017).

Panesso Giraldo eta Arango Holguin-ek (2017) bere testuan adierazten duten bezala, autore batzuen arabera, autoestima altua edo baxua izan daiteke. Autoestima altua izateak, autopertzepzio eta jarrera baikorrekin du zerikusia. Honek, eragina izango du helburu eta erronka berrien aurrean, izan ere, autoestima altua duen pertsonak motibazioa adierazten baitute hauen aurrean. Gainera, autonomoagoak eta kritiken aurrean mentalki "indartsuagoak" dira autoestima altua duten gizakiek. Autoestima baxua izateak aldiz, arazoei aurre egiteko gaitasun baxuarekin edo ezarekin du zerikusia. Horretaz gain, autoestima baxua duten gizakien gogo-aldarteak erraz jaitsi daiteke egoera edo arazo larrien aurrean.

2.2.2 Konpetentzia motorra Heziberrin

Behin Heziketa Fisikoa, autokontzeptua eta autoestima zer diren ikusita eta gizakiongan nola eragiten duen ikusita, hurrengo lerroetan, Heziketa Fisikoko ikasgaietan landu beharreko edukiak zeintzuk diren ikusiko dira. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak (2016) proposatutako Heziberri 2020 236/2015 izeneko dekretuan jarriko da arreta. Eusko Jaurlaritzak (2016) adostutako eta Heziberriko Dekretuan Konpetentzia Motorraren atalean agertzen diren eta bete beharko liratekeen helburuak, honako 7 helburu hauek dira:

1. Hautemate-gaitasunak eta ahalmen motorrak aztertzea, nor bere buruarenganako konfiantza eta norberaren ongizatea sustatuz, osasunerako onuragarria izan dadin.
2. Trebetasun eta ahalmen fisikoak garatzea, haurren eboluzio-prozesuarekin bat, jolasa erabiliz, oinarrizko baliabide den aldetik.

3. Problema motorrak ebazteko printzipioak eta arauak ezagutzea, hautatzea eta aplikatzea, jarduera fisikoak, kirol-jarduerak eta arte- eta adierazpen-jarduerak praktikatzean eraginkortasunez eta autonomiaz aritzea, ahalegina erregulatuz, dosifikatuz eta balioetsiz, eta norberaren aukeren eta zereginaren nolakotasunaren arabera maila jakin batera iristea nork bere buruari ezartzen dion eskakizunean.

4. Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako jolas-tradizioak, jarduera fisikoen eta kirol-jardueren tradizioak nahiz adierazpen-tradizioak ezagutzea, haien balioak errespetatzeko eta balioesteko, jolas eta adierazpen tradizionalak eta herrikoiak praktikatzuz.

5. Gorputzaren eta mugimenduaren adierazpen-bitartekoen berri jakitea, modu estetikoan eta sortzailean landuz, haiek sentitzeko, bizitzeko eta onartzeko, eta mugimendu propio baten bidez pertsonalizatzeko.

6. Jarduera fisikoa neurritz eta maiz egitearen garrantzia balioestea, norberarekiko nahiz besteekiko erantzukizunezko jarrera erakusteko, eta ariketa fisikoak, higieak, elikadurak eta jarrera-ohiturek osasunean dituzten eraginak aintzat hartzea.

7. Jarduera fisikoetan parte hartzea, besteekin batera talde-harremanak sustatzen dituzten proiektuak garatuz, eta aisia-kultura aberasgarri baten oinarriak eraikiz.

Heziketa Fisikoko saioetan landuko diren edukiak , aldiz, honako 5 eduki multzo hauetan banatzen dira Eusko Jaurlaritzaren (2016) arabera:

1. MULTZOA. Eduki komunak

2. MULTZOA. Nork bere burua ezagutzea eta kontrolatzea

3. MULTZOA. Gorputz-adierazpena eta komunikazioa

4. MULTZOA. Jarduera fisikoa eta osasuna

5. MULTZOA. Kultura motorra: aisia eta denbora librerako hezkuntza

2.2.3 Curriculum ezkutua

Aurreko atalean, GH-ko saioetan zehar landu beharreko curriculumeko helburuak eta edukiak zeintzuk diren ikusi dira. Helburu eta eduki horiek, saioa aurrera eramateko nondik norakoak izaten dira. Hala ere, atal honetan, beste curriculum baten inguruan hitz egingo da, izan ere, curriculum ezkutua. Torres Santomé (1991), esan bezala, curriculum ezkutua, eduki

kulturalen, errutinen, interakzioen eta eskolako eginkizunen bitartez eta modu implizitu batean agertzen denari deritzo. Normalean, curriculum honen bitartez, gure gizartearen oinarrizko dimentsioen eta berezitasunen erreproduzio hutsa egiten da. Hori dela eta, Tinning (1992) adierazi zuen bezala, curriculum ezkutuaren bitartez, planifikatuta ez dauden zenbait ikasketa esanguratsu emango dira.

Zoritxarrez, curriculum ezkutua ez da soilik irakasgai batean ematen, baizik eta guztietan ematen da eta nola ez, Heziketa Fisikoan baita ere. Richard Tinning-ek (1992) Heziketa Fisikoan ematen diren zenbait gai aztertu izan ditu Horietatik, ikerketa honekin bat datorrena, sexismoa eta heziketa fisikoaren gaia da. Susan Ryan senatoreak aurkeztutako proiektuan El logro de la autoestima en las chicas: Contribución de la educación física y el deporte (Tinning, 1992 zitatuta), erabilitako hitz batzuk oso ongi laburbiltzen dute curriculum ezkutuak nola jokatzen duen Heziketa Fisikoko arloan, sexismoaren gaiaren inguruan.

No hay duda de que, durante sus años escolares, chicos y chicas aprenden poco a poco que debido a su sexo se esperan cosas distintas de ellos. Que en las escuelas el fomentar este punto de vista en un área, como por ejemplo la actividad física, tiende a reforzarlas en otras áreas. Una niña de la escuela primaria a quien no se permite jugar a fútbol o al cricket o a cualquier deporte que se considera muy fuerte o agresivo, recibe una idea muy clara sobre el papel que se espera que adopte o, como en este caso, que no adopte. (Ryan, d.b.)

Beraz, esan dezakegu, Heziketa Fisikoa eta kirola modu sexista eta kultura patriarkal baten barnean oinarrituta dagoela eta ikasleek honela jasotzen dutela (Tinning, 1992).

Orduan ageri den informazio guzti hori ikasleek jasotzen dute eta hor egon beharko du irakasleonekin egin beharra eta esku hartzea. Horretarako ezinbestekoa izango da irakasleek zenbait perspektiba mota ezagutzea. Horien artean, perspektiba kritikoa, aurrerago azalduko dena. Hala ere, horrek ez du esan nahi Gorputz Heziketako irakasleak ikasgai honetako eduki eta helburu fisiko eta motorrak alde batera utzi beharko dituenik, baizik eta horiek lantzeaz gain, gorputzaren heziketa kritikoa garatu beharko duela; pertsona autonomoa eta kritikoa lortzeko asmoz, hau da, garapen integrala lortu ahal izateko. Hurrengo puntuan beraz, irakaslearen funtzioa zertan datzan eta perspektiba kritikoa zertan oinarritzen den eta Heziketa Fisikoko irakasgaiari zer garrantzia duen azalduko da.

2.3 Heziketa Fisikoaren garapena ikus kultura eta perspektiba kritikoaren bidez

2.3.1 Irakaslearen funtzioa

Irakaslearen funtzioa, gizarteko jende askorentzat erraza edo sinplea den arren, nahiko konplexua dela esan daiteke. Irakaslearen rola edo funtzioak, kokatzen den sozietatearekin erlazio oso estua dauka, ezinbestekoa baita horren momentura egokitzea (Ruiz Quiroga, 2010). Irakaslearen papera, irudia eta rola gure gizartean duela urte eta mende asko sortutakoa da. Irakaslearen papera, gizartetik sortzen dela esaten da, hasiera batean, gizarteak aurrerantz jarraitu ahal izateko transmititu behar zitzaizkien kontzeptuen transmisore bezala sortu izan zen. Hasiera horietan, transmititzeko era bakarra, modu oralean egitea zen, geroago, idazkera agertuko zen, hurrengo pausua, inprenta, beraz, eginbeharrekoak gehitu egin zitzaizkion. Inprentaren ostean liburua etorri zen eta azkenik, multimedia bezala ezagutzen dena. Beraz, orain, mezuen transmisore aditua bezala ezagutzen da (Ruiz Quiroga, 2010).

Irakaslea, aldaketa prozesuetako eragile nagusietako bat da (Castillo Sánchez eta Gamboa Araya, 2012). Hori dela eta, aurreko paragrafoan adierazitako ikuspuntuari, hau da, irakaslea ezagutzen transmisore den ideia horri, beste batzuk gehitzea komeni da. Hortaz, irakaslea, ikasketa egoerak errazten dituen eta ikasleekin batera ikertzen eta ikasten duen profesionala izan beharko da (Castillo Sánchez eta Gamboa Araya 2012). Bestetik, Castillo Sánchez eta Gamboa Arayarentzat (2012) honako aspektu hauek garrantzia dute: irakaslea, ikaskuntza prozesuan zehar gidari bezala jokatzeko, alderdi kognitibo eta emozionalean laguntzaile izatea, ikasleen eredu izatea, eta hezitzaile-espezialista-ikertzaile papera hartzea.

Esan den bezala, irakaslea ikaslearen ikasketa prozesuan gidari bezala jokatzeko ezinbestekoa da. Vigotsky, psikologiako aditu errusiarrak, "zona de desarrollo proximal" (ZDP) terminoa garatu zuen, euskeraz hurbileko garapen eremua bezala ezagutzen dena. Eremu hau, Vigotskyk El desarrollo de los procesos superiores obran (Ruiz Hernández, 2014 zitatuta) aipatu zuen bezala, honi egiten dio erreferentzia: "la distancia entre el nivel de desarrollo, determinado por la capacidad del sujeto (...), y el nivel de desarrollo potencial, determinado a través de la resolución de un problema, bajo la guía de un adulto o colaboración con otro" (1988, 133.or.). Vigotskyk laguntza horri, aldamiarekin deitu zion eta irakasleek emango dute, umea hurbileko garapen eremura igaro dadin (Sesento García, 2017).

2.3.2 Perspektiba kritikoa

Hezkuntza arloan irakaskuntza metodologia, ikuspuntu eta pedagogia mota asko daude eta guztiak erabiltzen dira. Gorputz Hezkuntzan baita ere, urte osoko programazioak eta saioak bideratzeko hainbat programa eta perspektiba daude, baina zati hau, perspektiba kritikoa soilik oinarrituko da.

Perspektiba guztien artean, perspektiba kritikoa jarriko da arreta eta honen nondik norakoak azalduko dira. Perspektiba kritikoa pertsonalitate aske bat garatzearen prozesuan jartzen du arreta, horretarako, ezaugarrietara moldatutako eta desberdintasun soziokulturalen aurka borroka egiten duen metodologia bat jartzen du martxan (Fraile Aranda, 1999). Freirek (1970) heziketa kritikoa definitzeko, koherenteki irakasteko moduen bilaketa bat balitz bezala definitzen du, non, hausnarketa eta akzioa humanizazio prozesu baten parte izango diren. Beste aldetik, heziketa kritikoa nondik norakoak azaltzeko, hitz hauek erabiltzen dira baita ere: "la Pedagogía Crítica Revolucionaria debe guiarnos en la construcción de una lucha emancipadora anti-capitalista, anti-imperialista, anti-racista, anti-sexista y pro-democrática" (McLaren eta Huertas-Charles, 2011, 229.or.).

Hori dela eta, Freirek (1970) dioenez, Pedagogia Kritikoa, bide luze bat da, non, irakasleak eta ikasleak, indagazio, zalantza eta eraketa prozesu baten barne dauden. Irakasleen kasua nolakoa izan behar den adierazteko, Torres Santomé honako hau adierazten du:

esforzarse en comprender estas dimensiones ideológicas de la educación; tratar de desvelar cómo las formas culturales que producen los diferentes grupos sociales refuerzan o resisten y penetran las distintas ideologías y sus manifestaciones (...) analizar las contraculturas que en las aulas se generan. (1991, 125.or.)

Heziketa Fisikoari dagokionez, perspektiba kritikoa lanketa ezinbestekoa da baita ere. Pieron (1988) Didáctica de la actividad física y el deporte obran, (Fraile Aranda, 1999 zitatuta) Gorputz Heziketak betidanik ikuspuntu zehatz bat, Heziketa Fisiko tradizionala bezala ezagutzen dena, izan duela adierazten du. Honetan, aktibitate fisiko eta korporalak garatzeko ahalik eta ezagutza, konpetentzia eta gaitasun gehien eskuratzea izan da helburua. Hori dela eta, ikuspuntu kritiko honetatik, Heziketa Fisikoa honetaz arduratuko da: norena da ezagutza, zeinek ateratzen ditu etekinak, ze interesek aldatzen duen, zer kulturak transmititzen duen...Azken finean, edukiak eta helburuak gai sozialekin erlazionatzea da, ikasgelan botere erlazioak aztertze asmoz. Teoria kritikoa, praktikan ematen diren arazoak konpontzen

lagundu beharko du. (Fraile Aranda, 1999). Gainera, Heziketa Fisiko kritikoak, ikasleek euren errealitatea testuinguru desberdinetatik aztertzea ahalbidetuko du, honela, erabaki eta autonomia maila arduratsuagoak izanik (Fraile Aranda, 1999).

Autonomia maila hori lortu ahal izateko, irakasleek, formakuntza teorikoa eta praktikoa izan beharko dute gai honetan, geroago pedagogia mota hau landu ahal izateko. Horregatik, Méndez-Nuñez eta Murillok (2017) dioten bezala, Unibertsitatetik, justizia sozial eta eraldapeneko gaitan arreta jartzen duen Pedagogia Kritikoa martxan jartzeko beharra dago. Tonuccik La escuela como investigación obran erabilitako hitzak (Mendez-Nuñez eta Murillo, 2017 zitatuta):

para esta escuela no sirve un maestro. En otras palabras, no sirve una persona que sepa mil veces más que los muchachos. Se precisa una persona que viva los problemas de su época, que sepa reflexionar y tomar posiciones, una persona en cuyos actos se vea lo que sabe y en lo que cree. (1976, 50.or.)

Bukatzeko, irakasleek praktikan gertatzen den hori, euren behaketarekin eta esperientzia propioarekin kontrastatu beharko dute, egoera transformatzeko asmoz. Gainera, eskolako praktika errealitate sozialarekin nola erlazionatzen den ulertu eta ezagutu beharko du. Horretarako, ezinbestekoa izango da irakaslea testuinguru sozio-hezitzaileko egoerei, bere eginkizunari eta kultura, botere eta eraldaketaren artean ematen diren interkonexioei buruz hausnartu beharko du (Fraile Aranda, 1999).

3. Metodologia

Metodologiarekin hasi baino lehenago, komeni da gogoraraztea lan honen helburu nagusiak, gizarteko kirolezko eta aktibitate fisikoko genero estereotipoak kirolezko liburuetan nola agertzen diren aztertzea eta estereotipo horiek Gorputz Hezkuntzako saioetan ematen diren eta nola ematen diren aztertzea dela. Horrez gain, beste helburu batzuk, estereotipo horiek ikasleen jarreran eta usteetan zer nolako eragina duten aztertzea eta irakasleek jasotzen dituzten irudiak kirol eta aktibitate fisikoko genero estereotipoak badituzten ala ez aztertzea izango dira. Azkenik, estereotipoen agerpena nabaria bada, eta ez bada baita ere, Heziketa Fisikoko saioetan pedagogia kritikoa lantzearen beharrari buruz hausnartzea eta ikus kulturaren pedagogia kritikoa erabilgarria izan daitekeen aztertzea izango dira lan honen gakoak.

Horren inguruan aztertu, ikertu eta hausnartu ahal izateko, bi ikerketa-tresna nagusi erabili zian dira. Alde batetik, saio praktikoan ateratako argazkiak (gizarteko kirol eta aktibitate

fisikoko genero estereotipoak Gorputz Hezkuntzako saioetan ematen diren ala ez eta nola ematen diren aztertzeko). Argazki horietan, ikasleek egunerokotasuneko edo kirolezko egoera bat sortu behar zuten Heziketa Fisikoko materialaren gelan egon daitekeenarekin. Bestetik, GH-ko liburuen argazkiak, 90. hamarkadako bat eta 2000.hamarkadako beste bat aukeratu dira (gizarteko genero estereotipoak Heziketa Fisikoko liburuetan nola agertzen diren aztertzeko). Liburu horietako argazkiak aukeratzekoan, irizpideak, gizakiak jarduera fisikoa edo kirola egiten egotea izango dira. Hori kontuan hartuz eta gero, generozko taulan edo kirol edo aktibitate fisikoko taulan sailkatu egingo dira.

Lan honetan argazkien azterketa egiteko erabili izan den metodologia, mistoa izan da. Izan ere, alde batetik metodologia kuantitatiboa erabili delako eta beste aldetik, kualitatiboa. Horretarako, argazkiei buruzko behaketa eta analisi metodoa erabili izan da. Behaketa metodoa argazkiak behatzeko eta horiek aztertzeko erabili izan da. Bestetik, analisi metodoa erabili izan da klaseko saio praktikokoan ateratako argazkiak eta Gorputz Hezkuntzako liburuetan ageri diren argazkiak aztertzeko eta irizpideen arabera horien zenbaketa egiteko. Klasean ateratako argazkien eta Gorputz Hezkuntzako liburuetan ageri diren argazkien prozedura aurrerago azalduko da sakonago, ikerketa-tresnak izena duen atalean hain zuzen ere.

3.1 Helburuak

Lan honetan, gizarteak sortutako kirolezko eta aktibitate fisikozko genero estereotipoak aztertu nahi dira. Alde batetik, Bentades Ikastetxeako (Mungia) Lehen Hezkuntzako 6.mailako 24 ikasleek eurek gorpuztutako eskulturen argazkiak aztertzen, eta bestetik, Gorputz Hezkuntzako testu liburuetan ageri diren irudiak aztertuz. Helburu nagusia, Gorputz Hezkuntzako irakasleek jaso ditzaketen argazki edota irudi horiek aztertzea izango da, irakasleek horien aurrean izan beharreko jarrera kritikoaren beharra adierazteko eta GH-ko saioetan pedagogia kritikoa lantzearen beharra bermatzeko.

Bentades Ikastetxean egindako saio praktikoko eta liburuen analisisa egiterakoan, hauek izango ziren zehatz-mehatz GrAL honetan lortu nahi diren helburuak:

- Gizarteko genero estereotipoak kirolezko liburuetan agertzen diren eta nola agertzen diren aztertzea.
- Gizarteko genero estereotipoak Gorputz Hezkuntzako saioetan ematen diren eta nola ematen diren aztertzea.

- Ikus kulturak ikasleen jarreretan nolako eragina duen aztertzea.
- Irakasleek jasotzen dituzten irudiak genero estereotipoak badituzten ala ez aztertzea.
- Kirolezko generozko estereotipoen agerpena nabaria bada, Heziketa Fisikoko saioetan perspektiba kritikoa lantzearen beharrari buruz hausnartzea.
- Ikus kulturan perspektiba kritikoa erabilgarria izan daitekeen aztertzea.

3.2 Hipotesiak

Ikerketa lan hau aurrera eraman aurretik hainbat hipotesi pentsatu ziren. Hipotesiak hurrengo hauek ziren:

3.2.1 Hipotesi orokorra:

Gizonezkoen eta emakumezkoen generoa kontuan hartuta, kirolean edo aktibitate fisikoetan dituzten rolak desberdinak dira. Beraz, rol estereotipatu horrek eragina dauka gizarteko kideetan eta ondorioz, eskolan ikusgarria da. Gainera, kuantitatiboki hitz eginda eta kirol edo aktibitate fisikoko testuinguruan jarrita, gizonezkoen agerpena, emakumezkoena baino nagusiagoa da irudietan.

3.2.2 Gorputz Hezkuntzako liburuetako argazkien hipotesiak:

- Gizonezkoen agerpena emakumezkoena baino nagusiagoa da.
- Gizonezkoak talde kirolean gehiago agertzen dira.
- Emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago agertzen dira kirol edo jarduera artistikoetan.
- Gizonezkoak gaitasun fisikoetako kirolean edo jardueretan gehiago ageri dira.
- 90eko hamarkadan emakumezkoen agerpena urriagoa da 2000.hamarkadako liburuekin alderatuta.

3.2.3 Saio praktikoetan ateratako argazkien hipotesiak:

- Emakumezkoen gehiengoak uztaiak edo sokak erabiliko dituzte.
- Gizonezkoen gehiengoak futboleko baloiak erabiliko dute.
- Emakumezkoen gehiengoak kirol artistikoak adieraziko dituzte.
- Gizonezkoen gehiengoak futboleko egoerak adieraziko dituzte

3.3 Ikerketa-tresnak

Lan hau egiteko erabili izan diren tresnak, bi izan dira. Batetik, GH-ko testu liburuetan ageri diren irudiak aztertu dira. Bestetik, Erwin Wurm artista austriarrak egindako “One Minute Sculptures” obraren moldaketa propioa. Moldaketa hau saio praktiko batean erabili izan zen LH-ko ikasleen kirolezko eta generozko estereotipoak aztertzeko.

3.3.1 Gorputz Hezkuntzako testu liburuen analisia.

Gorputz Hezkuntzako saio praktikoetako jarduerak aurrera eramateko zenbait liburu daude. Horien barnean, ariketak azaltzeko azalpenaz gain, irudiak edo argazkiak agertzen dira, ulergarriagoak izateko. Hori kontuan izanda, liburu horien irudiak azterzea izan da helburua, horretarako, zenbait irizpide kontuan hartuz.

Azterketa honen helburua gizarteak liburuen bitartez isladatzen dituen kirolezko eta jarduera fisikoko genero estereotipoak azterzea izan da. Hau da, emakumezkoak eta gizonezkoak GH-ko liburuetako kirol edo aktibitate fisikoko jardueretan zer rol jokatzen duten azterzea. Erabilitako liburuak bi izan dira, bata 90.hamarkadakoa izango da, eta bestea, 2000.hamarkadakoa. Bi belaunaldi horietakoak izatea arrazoi bat dauka. Izan ere, bi hamarkada desberdin aukeratu dira belaunaldi batetik bestera transmititzen den ikus kultura desberdina ala berdina baden eta agertzen diren aldaketak (generozko estereotipoei dagokionez) aztertu ahal izateko. Bestetik, 2000.hamarkadako liburua aukeratzearen arrazoa, nire LH-ko eta H.F-ko irakasleak 2006.urtean erabilitako liburua uztea izan da. Izan ere, nire irakasle ohiak liburu hori erabili baitzuen ikasturte hartan bere saioak prestatzeko. Liburuak hauek izan dira:

1. **90.hamarkadako liburua:** Educación Física : libro del profesor : 3er Ciclo de Educación Primaria. Edelvives Argitaletxea. Egileak: Luis Carlos Torrescusa, Francisco Javier Coterón eta M. Angeles López (1994).
2. **2000. hamarkadako liburua:** Educación Física. 6.primaria. Anaya Argitaletxea. Egileak: Manuel Vizuete Carrizosa eta Purificación Villada Hurtado (2006).

3.3.2 Erwin Wurm artistaren obraren moldaketa.

Erwin Wurm, Austrian (1954.urtean) jaiotako artista garaikide famatua da 2014.urtean sortutako “One Minute Sculptures” obraren ondorioz. Artista honek sortutako obra honetan, giza gorputzak ziren protagonistak. Eskultura horietan, gizakiek egunerokotasunean aurkitzen zituzten materialekin batera (laranjak, jertsea, brik-ak...) eskultura gorputzuak sortu behar

zituzten. Obra honen ideia egiteko, Eva Würdinger-ek (2017) egindako eta "Nieve profunda" titulua duen argazkia erabili da (ikusi 2. argazkia).



2. argazkia: Erwin Wurm artistaren obra, "Nieve Profunda" Eva Würdinger (2017).

Artista austriar horren ideia kontuan hartuta, proposamenerako ideia baliagarri bat atera zen. Izan ere, iaz (2018-2019 ikasturtea) Bentades Ikastetxean (Mungia) egindako Praktikumean Gorputz Adierazpenari buruzko Unitate Didaktiko bat aurrera eramane zen. Sei saio praktikoko iraun zuen UD horren barnean, Erwin Wurm-aren ideien moldaketa burutu zen. Moldaketa hau aurrera eramane ahal izateko jarraitutako prozedurak hurrengo hauek izan ziren:

1. Ikasleek, Heziketa Fisikoko materialaren gelan dagoen eta euren nahi duten materiala aukeratzeko dute.
2. Minutu bat dute argazki kameraren aurrean jartzeko eta egunerokotasuneko edo kirol edo jardura fisikoko egoera bat antzezteko.
3. Ikasleari gorpuztutako eskultura sortuta duenean argazkia ateratzeko zaio.
4. Sortutako egoera txantiloian (ikusi 1. txantiloia eranskinetan) deskribatzea eskatzen zaio

Saio praktikokoan lortutako argazkien irudikapena egiteko hurrengo argazkiei erreparatu (ikusi 1. argazkia hurrengo orrialdean).



1. argazkia: "One Minute Sculptures" obraren moldaketa, saio praktikoko argazkia.

3.4 Metodologia irizpideak

Metodologia irizpideen barnean, tauletan ageriko diren kategoriak adierazteko erabili izan diren iturri eta baliabideak agertuko dira. Beste aldetik, irudiak aukeratzeko irizpideak atalean, horien azterketa egiterako orduan erabili izan diren irizpideak azalduko dira.

3.4.1 Irudiak aukeratzeko irizpideak

Irudiak aukeratzeko momentuan, irizpide bakarra hartu da kontuan, izan ere, irudietako gizakiak jarduera fisikoa edo kirola egiten egotea. Gogoratu behar da, marko teorikoaren 2.1.2 puntuan agertzen den moduan, emakumezko edo gizonezko baten irudiak desberdintzeko, gaur eguneko genero estereotipoetan jarri da arreta, hau da, emakumezkoak ile luzea eta gizonezkoak ile motza izatea. Horiek direla adierazteko, gogoratu Ruiz Ulacia (2015) eta Sanz Gonzálezen (2013) Gradu Amaierako Lanetan adierazitako hitzetan oinarria jarri dela. Irizpidea, esan bezala, jarduera fisikoa egitea edo kirola egiten egotea izan da. Horretarako jarduera fisikoa zer den ulertu behar da:

Definizioa: Jarduera fisikoa esaten diogu energia kontsumitzen duen gorputzeko borondatezko mugimendu orori. Ariketa fisiko programatua, kirola esaten diogun hori: futbola, saskibaloia, tenisa, aerobica, yoga eta abar edota gorputza mugiarazten dute jarduerak izan daiteke, hala nola, etxeko lanetan, jolastean, aisialdiko jardueretan.. (Eusko Jaurlaritzza Osasun Saila, 2018).


Aztertu diren irudien ideia mentala egiteko, ikusi ageri diren 1. eta 2. irudiak:



1.irudia: 1990.hamarkadako, Educación Física: libro del profesor: 3er Ciclo de Educación Primaria, liburutik lortutako irudia

2. irudi hau, Moya Mata, Ros Ros, Bastida Torrónategui, eta Menescardi Royuela, (2013). Estereotipos de sexo y raza en las imágenes de los libros de texto de educación física en primaria ikerketan erabilitako irudia da eta jatorria hauxe da: Educación Física 5. Ed. Primaria. Tercer ciclo. Anaya (2009). Nahiz eta GrAL honetan eta autore hauek egindako ikerketan

erabilitako liburuaren urtea berdina ez izan, irudiak oso antzekoak dira, beraz, ideia egiteko baliagarriak izango dira.



2.irudia: 2000.hamarkadako, Moya Mata et. al-ek erabilitako irudia, Educación Física 5.Ed. Primaria. Tercer Ciclo Anaya (2009) liburutik lortutako irudia.

Beste aldetik, saio praktikoan erabilitako argazki guztiak erabili izan dira. Irizpide bakarra, aurretik, 3.3.2 Erwin Wurm-en artistaren obraren moldaketa izena duen puntuan aipatutako prozedurak jarraitzea izan da.

3.4.2 Kategoriak aukeratzeko irizpideak eta esanahia

Aldagaiak eta kategoriak aukeratzeko momentuan, González-Palomares eta Rey-Cao (2013) “Cultura corporal y estereotipos en las imagenes de libros de texto de Educación Física publicados bajo el periodo de la Ley Orgánica de Educación (LOE)” izeneko obran erabilitako kategorietan jarri da oinarria. Hau da, bertatik atera izan dira tauletan ageri diren kategorietarako ideiak.

Aurretik aipatutako autoreak generoa, adina, arraza, somatotipoa, jarduera fisiko mota, testuingurua eta espazioa hartzen dute aldagai bezala. Lan honetan, aldiz, autore horrek erabilitako aldagaietatik, kirol edo aktibitate/jarduera fisiko motan eta generoan jarri da arreta. Aldagaien sinplifikapena eta moldaketa ezinbestekoa izan da GrAL honetarako baliagarriagoak izateko. Rey-Cao-k eta González-Palomaresek (2013), aldagai horien barnean, zenbait kategoria sortu dituzte eta kategoria bakoitzaren azalpena adierazi dute taula batean, argazkia kategoria horretakoa izateko zer-nolako irizpideak bete behar dituen jakin dezagun. Lehen aipatu den bezala, Gradu Amaierako Lan honetan, aldiz, autore horiek egindako taulen moldaketa bat egitea ezinbestekoa izan da. Testu liburuko irudien analisisa egiteko erabili den taula hurrengo hau izan da (ikusi 1.taula):

ALDAGAIA	ERAKETA MOTA	ERAKETAREN AZALPENA	KATEGORIA	KATEGORIAREN AZALPENA
Generoa	Banaka	Pertsona bakarra ageri bada	Gizonezkoa	Gizonezkoa dela esango da baldin eta Ruiz Ulacia (2015) eta Sanz González (2013) aipatutako ezaugarriak adierazten baditu. Ile motza izatea.
			Emakumezkoa	Emakumezkoa dela esango da baldin eta Ruiz Ulacia (2015) eta Sanz González (2013) aipatutako ezaugarriak adierazten baditu. Ile luzea izatea.
			Ez da bereizten	Emakumezkoa edo gizonezkoa bada bereizten ez bada
	Genero berdineko taldea	Pertsona bat baino gehiago ageri bada eta pertsona guztiak genero berdinekoak baldin badira	Gizonezkoen taldea	Gizonezkoen taldea dela esango da baldin eta irudiko gizaki guztiak Ruiz Ulacia (2015) eta Sanz González (2013) aipatutako ezaugarriak adierazten baditu. Ile motza izatea
			Emakumezkoen taldea	Emakumezkoen taldea dela esango da baldin eta irudiko gizaki guztiak Ruiz Ulacia (2015) eta Sanz González (2013) aipatutako ezaugarriak adierazten baditu. Ile luzea izatea
			Ez da bereizten	Emakumezkoen edo gizonezkoen talde osoa bada bereizten ez bada
	Taldea mistoa	Pertsona bat baino gehiago ageri bada eta bi generoak desberdintzen baldin badira	Gizonezko gehiago	Gizonezkoak emakumezkoak baino gehiago baldin badira
			Emakumezko gehiago	Emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago baldin badira
			Berdin	Emakumezkoen eta gizonezkoen kopurua berdina baldin bada
			Ez da bereizten	Emakumezkoen edo

				gizonezkoen kopurua berdina edo desorekatua baldin bada bereizten ez denean
ALDAGAIA		KATEGORIA		AZALPENA
Kirol edo jarduera fisikoaren arabera		Talde kirolak		Kirolean taldeko lankidetzeta eta aurkaritza baldin badago edukiko da kontuan. Adibidez: futbola, errugbia, saskibaloia, volleyball-a, hockey-a
		Bakarkako kirola		Kirolean parte hartzea modu indibidualean, kideen laguntza zuzen barik, ematen bada edukiko da kontuan. Adibidez: atletismo, igeriketa, tenis, gimnasia
		Jarduera edo kirol artistikoa		Gorputza adierazpen artistiko bat gauzatzeko erabiltzen den aktibitate edo kirola. Adibidez: dantza, gorputz adierazpeneko aktibitateak, gimnasia erritmikoa, ballet
		Fitness edo egoera fisikoko jarduera		Abiadura, indarra, malgutasuna edo erresistentzia hobetzea helburu duten aktibitateak. Adibidez: korrika egitea, muskulaziozko aktibitateak, luzaketak
		Naturako Abenturazko Aktibitate Fisikoak (NAAF)		trekking, mendi-ibiltaritza, puenting, mendi-bizikleta
		Gorputz eskema sortzeko jarduera psikomotorrak		Besteen eragin barik egin daitezkeen eta bakoitzaren gorputza ezagutzeko balio dituzten aktibitateak. Adibidez: artikulazioen mugimenduak ezagutzeko aktibitateak, erlaxazioa

	Materiala manipulatzeko ikasteko jarduerak	Puxikak, pilotak, palak etab manipulatzeko ikasteko egiten diren aktibitateak
	Beste bat	Aurreko kategorietan barne ez dauden beste guztiak

1.taula: Liburuetatik lortutako irudiak sailkatzeko adierazleak.

Saio praktikoko argazkien analisisa egiteko erabili den taula beste hau izan da (ikusi 2. taula):

ALDAGAIA	KATEGORIA	AZALPENA
Generoa	Gizonezkoa	Gizonezkoa dela esango da baldin eta Ruiz Ulacia (2015) eta Sanz González (2013) aipatutako ezaugarriak adierazten baditu. Ile motza izatea
	Emakumezkoa	Emakumezkoa dela esango da baldin eta Ruiz Ulacia (2015) eta Sanz González (2013) aipatutako ezaugarriak adierazten baditu. Ile luzea izatea
Materiala	Baloia	Eskultura sortzean baloia erabiltzen badu
	Badminton erraketa	Eskultura sortzean badminton erraketa erabiltzen badu
	Baloia + uztaiak	Eskultura sortzean baloia + uztaiak erabiltzen badu
	Soka	Eskultura sortzean soka erabiltzen badu
	Ezer ere ez	Eskultura sortzean ezer ere ez badu erabiltzen
Egoera	Kirolezko / Jarduera fisiko egoera	Eskultura sortzean kirol edo aktibitate fisiko bat antzeman badaiteke eta ikasleak txantiloian kirolezko/aktibitate fisiko atalean sailkatu baldin badu bere eskultura. Adibidez: futboleko egoera, saskibaloiko egoera, badmintoneko egoera, gimnasia erritmikoko egoera, frisbee jaurtiketa..
	Egoera konkretua	Eskultura sortzean egunerokotasunean eman daitekeen egoera bat sortzen badu eta ikasleak txantiloian egoera konkretuko atalean sailkatu baldin badu bere eskultura. Adibidez: sukaldatu, egunkaria irakurri, norbait agurtu...
	Egoera abstraktua	Eskultura sortzean egunerokotasunean ematen ez den eta ulertezina edo interpretazio anitzekoa den egoera bat sortzen badu eta ikasleak txantiloian egoera abstraktuko atalean sailkatu baldin badu bere eskultura..

2.taula: Saio praktikoko ateratako argazkiak sailkatzeko adierazleak.

4. Ikerketaren emaitzak

4.1 Liburuaren datuetako emaitzak


Atal honetan, Gorputz Hezkuntzako testu liburuetako irudien emaitzak azalduko dira. Azterketa horretarako baliagarriak diren argazkiak aukeratzeko, 3.4.1 puntuan (Irudiak aukeratzeko irizpideak) adierazitako irizpideak hartuko dira kontuan. Horretaz gain, irudiak sailkatzeko momentuan, 3.4.2 (Kategoriak aukeratzeko irizpideak eta esanahia) puntuko 1.taulan adierazitako kategorietan jarriko da arreta. Bestetik, emaitzak, bi grafikotan daude banatuta, alde batetik, generoarekin lotura duten emaitzak eta bestetik, kirol edo jarduera fisikoarekin lotura dutenak. Bukatzeko, analisisia egin aurretik ateratako hipotesiak hauek direla gogorarazten da:

- Gizonezkoen agerpena emakumezkoena baino nagusiagoa da.
- Gizonezkoak talde kirolean gehiago agertzen dira.
- Emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago agertzen dira kirol edo jarduera artistikoetan.
- Gizonezkoak gaitasun fisikoetako kirolean edo jardueretan gehiago ageri dira.
- 90eko hamarkadan emakumezkoen agerpena urriagoa da 2000.hamarkadako liburuekin alderatuta.

4.1.1 1990. hamarkadako liburuaren datuetako emaitzak

Atal honetan, 90.hamarkadako Gorputz Hezkuntzako testu liburuan agertzen diren irudiak aztertuko da. Liburua hau izango da: Educación Física : libro del profesor : 3er Ciclo de Educación Primaria. Edelvives Argitaletxea. Bestetik, liburu honen egileak, Luis Carlos Torrescusa, Francisco Javier Coterón eta M. Angeles López eta 1994.urtekoa da.

Hurrengo orrialdeko, 1 grafikoan ikus daitekeenez, eraketa motaren arabera irudiak banaka edo taldeka (genero berdinekoa edo talde mistoa) aztertu dira. Banaka atalaren barnean, emakumezkoa, gizonezkoa edo ez da bereizten izan daiteke aldagaia. Irudiak taldeka aztertzerakoan, genero berdineko taldearen barnean, gizonezko taldea, emakumezko taldea edota ez da bereizten izan daiteke aldagaia. Talde mistoan, gizonezko gehiago egotea, emakumezko gehiago egotea edota ez bereiztea izan daitezke aldagaiak. Guztira 217 irudi aztertu dira.



1.grafikoa: 90.hamarkadako testu liburuen datuetako emaitzak grafikoki, generoan oinarrituta.


Banaka aztertutako irudiak 64 (%29,49) dira. Gizakiak banaka agertzen diren irudiei dagokionez, gizonezkoak nagusi dira, izan ere, hauek 37 iruditan (%17,05) ageri dira bakarrik eta emakumezkoak aldiz, 25 iruditan (%11,52). Beste bi irudietan (%0,92) , ez da bereizten emakumezkoa edo gizonezkoa baden.

Taldeka aztertutako irudiei dagokionez, genero berdineko talde irudiak edo talde mistoko irudiak berezitu daitezke. Bi talde mota horien artean 152 irudi (%71,12) daude. Genero berdineko taldean 7 irudi (%3,22) zenbatu dira. Horietatik emakumezkoen 2 talde irudi (%0,92) eta gizonezkoen 5 talde irudi (%2,3) agertzen direlarik. Beste aldetik, talde mistoko 146 irudi (%67,29) daude. Horietatik, emakumezko eta gizonezko kopuru berdina agertzen diren 69 irudi (%31,8) daude, gehiengo. Bigarrenik, gizonezkoen kopuru gehiago agertzen diren irudiak daude, 33 (%15,21) alegia. Hirugarrenik, emakumezkoen kopuru gehiago agertzen diren irudiak daude, 23 (%10,6) eta azkenik, emakumezko edo gizonezko gehiago dauden edota kopuru berdina dauden bereizten ez diren irudiak daude 21 (%9,68). Azkenik, generoa desberdintzen ez diren 2 irudi daude (%0,92).

Grafiko honen bitartez (ikusi 3.grafikoa hurrengo orrian), testu liburuko irudietan zer nolako jardura fisikoa edo kirola egiten ari diren aztertuko da. Horretarako, 8 kategoria sortu dira, betiere generoa kontuan izanda. Hauek dira:

1. Talde kirola

2. Bakarkako kirola
3. Fitness edo egoera fisikoa
4. NAAF (Naturan egiten diren Abenturazko Aktibitate Fisikoko)
5. Jarduera psikomotorrak
6. Manipulatzeko ikasteko jarduerak
7. Jarduera edo kirol artistikoak
8. Beste batzuk



3.grafikoa: 90.hamarkadako testu liburuaren datuetako emaitzak grafikoki, kirol edo jarduera fisikoko egoeretan oinarrituta.

Talde kirolak kategorian, 63 irudi (%28,64) aztertu dira. Horietatik, talde mistoko irudiak izan dira gehien agertu diren irudiak, 50 alegia (%22,73). Bigarrenik, gizonezkoak bakarrik agertzen diren irudiak, 8 irudi (%3,64). Hirugarrenik, emakumezkoak bakarrik agertzen diren irudiak izan dira, 3 irudi (%1,36). Azkenik, talde kirolezko kategorian bi gizonezko talde ageri dira (%0,91).

Bakarkako kirolean, 3 irudi (%1,36) aztertu dira bakarrik eta hirurak talde mistoko irudiei dagokie.

Hirugarren kategorian, fitness edo egoera fisikoa izena duena, 44 irudi ageri dira (%20). Horietatik, talde mistoko irudiak izan dira gehien agertu izan diren irudiak, izan ere, 21 izan dira (%9,55). Gizonezkoak bakarrik 12 iruditan (%5,45) agertu izan dira, emakumezkoak aldiz,

6 iruditan (%2,73). Gizonezko taldeak 4 iruditan (%1,82) agertu dira eta emakumezkoen taldeak bakar baten (%0,45).

NAAF kategorian, 10 irudi (%4,55) agertu dira eta guztiak talde mistoko irudiei dagokie.

Jarduera psikomotorrean, 2 irudi (%0,9) agertu dira, horietatik bat (%0,45) emakumezkoa bakarrik agertzen diren irudiei dagokie eta bestea (%0,45), talde mistoko irudiei.

Hurrengo kategorian, materiala manipulatzeko jarduerak izena duena, 12 irudi (%5,45) aztertu dira. Aurreko beste batzuetan bezala, talde mistoko irudiak izan dira "protagonistak", izan ere, multzo honetan 9 irudi (%4,09) daude. Bestetik, emakumezkoak bakarrik, gizonezkoak bakarrik eta emakumezko taldeak agertzen diren irudi bana jaso du kategoria honek. Hau da horietako bakoitzeko irudi bat (%0,45).

Jarduera edo kirol artistikoko kategorian, 57 irudi (%25,91) aztertu dira. Honetan baita ere talde mistoko irudiak izan dira gehiengoa, 34 irudi (%15,45). Bestetik, emakumezkoak bakarrik eta gizonezkoak bakarrik kopuru berdinean agertu dira, 11 iruditan alegia (%5). Azkenik, emakumezko talde baten irudia agertu da (%0,45).

Beste batzuk kategorian, 29 irudi (%13,18) daude. Horietatik emakumezkoak bakarrik 4 iruditan (%1,82) ageri dira. Gizonezkoak, aldiz, 6 iruditan (%2,73). Talde mistoko irudiei dagokionez, 17 irudi (%7,73) ageri dira, gehiengo oraingoan ere. Bukatzeko, generorik bereizten ez diren 2 irudi agertu dira (%0,91).

Hurrengo taula hauetan, aurretik azaldutako emaitzak batuko dira. Horretarako emaitzak portzentajeekin adieraziko dira. Lehenengo taulan (ikusi 3.taula), kirol edo jarduera fisikoarekin zerikusia duen grafikoaren emaitzak agertuko dira. Bigarrenean (ikusi 4.taula), aldiz, generoarekin zerikusia duten emaitzak ageriko dira. Azkenik, emaitzak kontuan hartuta, goialdean aipatutako hipotesiak baieztatuko edo ezeztatuko dira. Horretarako ikusi 33.orrialdeko 9.taula.

	Talde kirola	Bakarkako kirola	Fitness edo egoera fisikoa	NAAF	Jarduera psikomotorrak	Manipulatzeko jarduerak	Jarduera edo kirol artistikoa	Beste batzuk	Guztira
Emakumezkoa	%1,36	%0,00	%2,73	%0,00	%0,45	%0,45	%5,00	%1,82	%11,18
Gizonezkoa	%3,64	%0,00	%5,45	%0,00	%0,00	%0,45	%5,00	%2,73	%17,27
Gizonezkoak	%0,91	%0,00	%1,82	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%2,73

n taldea									
Emakumezkoen taldea	%0	%0,00	%0,45	%0,00	%0,00	%0,45	%0,45	%0,00	%1,35
Talde mistoa	%22,73	%1,36	%9,55	%4,55	%0,45	%4,09	%15,45	%7,73	%65,91
Ez da bereizten	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,91	%0,91
Guztira	%28,64	%1,36	%20,00	%4,55	%0,91	%5,45	%25,91	%13,18	%100

3.taula: 90.hamarkadako testu liburutik lortutako datuen emaitzak laburtuta, kirol edo jarduera fisikoan oinarrituta.

Eraketa mota	Kategoria	Portzentajea
Banaka	Gizonezkoa	%17,05
	Emakumezkoa	%11,52
	Ez da bereizten	%0,92
Genero berdineko taldea	Gizonezkoen taldea	%2,30
	Emakumezkoen taldea	%0,92
Taldea mistoa	Gizonezko gehiago	%15,21
	Emakumezko gehiago	%10,60
	Berdin	%31,80
	Ez da bereizten	%9,68
Guztira		%100

4.taula: 90.hamarkadako liburutik lortutako datuen emaitzen laburpena, generoan oinarrituta.

Aurreko emaitzak kontuan izanda, hipotesiak baieztatzea edo ezeztatzea izango da hurrengo pausua.

Lehenengo hipotesia, "gizonezkoen agerpena emakumezkoena baino nagusiagoa da" izena duena, bete egiten da. Izan ere, gizonezkoak bakarka %17,05 baten agertzen dira eta emakumezkoak aldiz, %11,52 baten. Gainera gizonezkoen taldeak %2,30a dira eta emakumezkoena aldiz, %0,92a. Azkenik, talde mistoak aztertzerakoan, ikus daiteke gizonezko gehiago %15,21 batean agertzen direla eta emakumezkoak aldiz, %10,60an.

Bigarren hipotesian, "gizonezkoak talde kiroletan gehiago agertzen dira" izena du. Hau, baita ere, baieztatu egingo da, izan ere, gizonezkoak bakarka %3,64 baten ageri dira eta

emakumezkoak aldiz, %1,36. Beste aldetik, gizonezkoen taldeari dagokionez %0,91 an ageri dira hauek eta ez dago emakumezko talderik.

Hirugarren hipotesia, “emakumezkoak gizonezkoak baino gehiagotan ageri dira kirol edo jarduera artistikoetan” izena du. Kasu honetan, hipotesia ezeztatu egin beharko da. Izan ere, emakumezkoak eta gizonezkoak bakarka portzentaje berdinean ageri dira kirol edo aktibitate fisiko artistikoetan %5. Hala ere, taldeei dagokionez, emakumezkoen taldea %0,45 baten ageri da eta ez da gizonezko talderik ageri.

Laugarren eta azken hipotesia, “gizonezkoak gaitasun fisikoetako kirolean edo aktibitateetan gehiago ageri dira” izena du. Kasu honetan, hipotesia baieztatu egin beharko da. Izan ere, gizonezkoak bakarka %5,45eko portzentajeetan ageri dira eta emakumezkoak aldiz, %2,73an. Taldeei dagokionez, gizonezkoak, %1,82ko portzentajeetan ageri dira eta emakumezkoak aldiz, %0,45eko portzentajeetan.

Datuak kontuan hartuta, hipotesien baieztapena edo ezeztapena laburki bildu dira taula honetan:

Hipotesia	BAI	EZ
Gizonezkoen agerpena emakumezkoena baino nagusiagoa da.	X	
Gizonezkoak talde kirolean gehiago agertzen dira.	X	
Emakumezkoak gizonezkoak baino gehiagotan ageri dira kirol artistikoetan.		X
Gizonezkoak gaitasun fisikoetako kirolean edo jardueretan gehiago ageri dira.	X	


9.taula: 90.hamarkadako datuetan oinarritutako hipotesien baieztapenen edo ezeztapenen taula.

4.1.2 2000. hamarkadako liburuaren datuetako emaitzak

Atal honetan, 2000.hamarkadako Gorputz Hezkuntzako testu liburuan agertzen diren irudiak aztertuko da. Liburua hau izango da: Educación Física. 6.primaria. Bestetik, liburu honen egileak, Manuel Vizuet Carrizosa eta Purificación Villada Hurtado eta liburua, 2006.urtekoa da.

Hurrengo orrialdeko 2.grafikoan ikus daitekeenez, irudiak aztertzerakoan, 90.hamarkadako testu liburuan jarraitutako prozedura eta egitura berdina jarraitu da. Kasu honetan, guztira, 160 irudi aztertu dira. Banakako kategoriari dagokionez, 76 irudi daude guztira (%47,5). Horietatik, 44 irudi daude non gizonezkoak bakarrik agertzen diren (%27,50). Emakumezkoak

bakarrik agertzen diren irudiak , aldiz, 30 dira (%18,75). Azkenik, emakumezkoa edo gizonezkoa baden bereizten ez den 2 irudi daude (%1,25).




2.grafikoa: 2000.hamarkadako testu liburuaren datuetako emaitzak grafikoki, generoan oinarrituta.

Taldeka aztertutako irudiak, 84 dira (%52,51). Genero berdineko taldearen barnean, 7 irudi (%4,38) daude. Horietatik, 6 irudi gizonezkoen taldeari dagokie (%3,75). Bestea, emakumezkoen taldeari dagokio (%0,63) Beste aldetik , talde mistoko irudiak 77 dira (%48,13) eta lau motatakoak izan daitezke: gizonezko gehiago dauden irudiak (30 irudi, %18,75) , emakumezko gehiago dauden irudiak (8 irudi, %5), emakume eta gizonezko kopuru berdina dagoen irudia (39 irudi, %24,38) edota bata edo bestea baino gehiago badauden bereizten ez den irudia (0 irudi).

Hurrengo orrialdearen hasieran agertzen den grafikoaren bitartez (ikusi 4.grafikoa hurrengo orrialdean) irudietan agertzen den jardura edo kirol motaren araberrako datuak ageri dira. Grafikoan agertzen den informazioa, aldagai eta kategoriarri dagokionez, 30.orrialdeko 3.grafikoan erabilitako berdina izan da.

Testu liburu honetan, guztira, 170 irudi aztertu dira, 1.kategorian (talde kirola) 30 irudi (%17,64) agertzen dira, generoari dagokionez honela banaturik: gizonezkoak bakarrik 5 iruditan ageri dira (%2,94), emakumezkoak bakarrik 3 iruditan (%1,76), gizonezkoen 2 talde

(%1,18) ageri dira talde kirolen bat egiten, aldiz, ez da emakumezkoen talderik ageri. Azkenik talde mistoko 20 irudi (%11,76) ageri dira.



4.grafikoa: 2000.hamarkadako testu liburuaren datuetako emaitzak grafikoki, kirol edo jarduera fisikoko egoeretan oinarrituta.

Bigarren kategorian, bakarkako kirolak izena duena, 7 irudi (%4,12) agertzen dira. 7 horietatik, emakumezkoak bakarrik ageri diren 2 irudi (%1,18) daude eta beste guztiak gizonezkoak bakarrik (%2,94) ageri diren irudiak dira.

Hurrengo kategoria, fitness edo egoera fisikoarekin zerikusia duena, 52 irudi aztertu dira (%30,59). Honetan, emakumezkoak bakarrik 10 iruditan (%5,88) ageri dira, gizonezkoak aldiz, 16 iruditan (%9,41). Gizonezkoen 2 talde (%1,18) ageri dira eta emakumezkoenak aldiz, bakarra (%0,59). Azkenik, talde mistoko 22 irudi (%12,94) ageri dira eta generoa bereizten ez den bakarra (%0,59).

Naturan egiten diren Abenturazko Aktibitate Fisikoko (NAAF) kategorian 15 irudi (%8,82) ageri dira. Emakumezkoak bakarrik (%0,59) agertzen diren eta gizonezkoak bakarrik (%0,59) agertzen diren irudi bana daude. Gizonezko taldea agertzen den irudi bakarra (%0,59) dago baita ere. Azkenik, talde mistoko 12 irudi agertzen dira (%7,06).

Bosgarren kategorian, jarduera psikomotorrak, 21 irudi (%12,35) ageri dira. Horietatik, 9 iruditan (%5,29) emakumezkoak bakarrik agertzen dira eta 12 iruditan (%7,06) gizonezkoak bakarrik. Manipulatzeko jarduerak izena duen kategorian, 18 irudi (%10,59) ageri dira. Honetan talde mistoko irudiak dira gehien ageri direnak, izan ere, 11 irudi daude (%6,47). Gero, emakumezkoak bakarrik agertzen diren irudiak dira gehien agertzen direnak, 4 irudi (%2,35) eta azkenik, gizonezkoak bakarrik agertzen diren 3 irudi daude (%1,76).

Jarduera edo kirol artistikoetan, 20 irudi (%11,76) aztertu dira. Horietatik emakumeak bakarka 2 iruditan (%1,18) ageri dira, gizonezkoak aldiz, bakar (%0,59) baten. Talde irudiei dagokionez, talde mistoko irudiak ageri dira soilik, 16 alegia (%9,41). Bukatzeko, beste batzuk kategorian, 7 irudi (%4,12) aztertu dira eta guztiak talde mistoko irudiei dagokie.

Hurrengo taula hauetan emaitzak laburki ikusiko dira, ahalik eta ikusgarrien egiteko asmoz. Lehenengo taula (ikus 5.taula) kirol edo jarduera fisikoarekin izango du zerikusia eta bigarrena (ikus 6.taula) generoarekin. Azkenik, 38.orrialdean 10.taulan, hipotesien baieztapen edo ezeztapenen laburpenaren taula ageriko da.

	Talde kirola	Bakarkako kirola	Fitness edo egoera fisikoa	NAAF	Jarduera psikomotorra	Manipulatzeko jarduera	Jarduera edo kirol artistikoa	Beste batzuk	Guztira
Emakumezkoa	%1,76	%1,18	%5,88	%0,59	%5,29	%2,35	%1,18	%0,00	%18,23
Gizonezkoa	%2,94	%2,94	%9,41	%0,59	%7,06	%1,76	%0,59	%0,00	%25,29
Gizonezkoen taldea	%1,18	%0,00	%1,18	%0,59	%0,00	%0,00	%0,59	%0,00	%3,54
Emakumezkoen taldea	%0,00	%0,00	%0,59	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,59
Talde mistoa	%11,76	%0,00	%12,94	%7,06	%0,00	%6,47	%9,41	%4,12	%51,76
Ez da bereizten	%0,00	%0,00	%0,59	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,59
Guztira	%17,64	%4,12	%30,59	%8,82	%12,35	%10,59	%11,76	%4,12	%100

5.taula: 2000. hamarkadako liburutik lortutako datuen emaitzak laburtuta, kirol, edo jarduera fisikoan oinarrituta.

Eraketa mota	Kategoria	Portzentajea
Banaka	Gizonezkoa	%27,50
	Emakumezkoa	%18,75
	Ez da bereizten	%1,25
Genero berdineko taldea	Gizonezkoen taldea	%3,75
	Emakumezkoen taldea	%0,63
	Ez da bereizten	%0,00
Talde mistoa	Gizonezko gehiago	%18,75
	Emakumezko gehiago	%5,00
	Berdin	%24,38
	Ez da bereizten	%0,00
Guztira		%100

6.taula: 2000. hamarkadako liburutik lortutako datuen emaitzak laburtuta, generoan oinarrituta.

Aurreko emaitzak kontuan izanda, hipotesiak baieztatzea edo ezeztatzea izango da hurrengo pausua.

Lehenengo hipotesia, “gizonezkoen agerpena emakumezkoena baino nagusiagoa da” izena duena, bete egiten da. Izan ere, gizonezkoak bakarka %27,5 baten agertzen dira eta emakumezkoak aldiz, %18,75 baten. Gainera gizonezkoen taldeak %3,75a dira eta emakumezkoena aldiz, ez dira ageri. Azkenik, talde mistoak aztertzerakoan, ikus daiteke gizonezko gehiago %18,75 baten agertzen direla eta emakumezkoak aldiz, %5 baten.

Bigarren hipotesian, “gizonezkoak talde kirolean gehiago agertzen dira” izena du. Hau, baita ere, baieztatu egingo da, izan ere, gizonezkoak bakarka %2,94 baten ageri dira eta emakumezkoak aldiz, %1,76. Beste aldetik, gizonezkoen taldeari dagokionez %1,18 baten ageri dira hauek eta ez dago emakumezko talderik.

Hirugarren hipotesia, “emakumezkoak gizonezkoak baino gehiagotan ageri dira kirol edo jarduera artistikoetan” izena du. Kasu honetan, hipotesia baieztatu egin beharko da baita ere. Izan ere, emakumezkoak %1,18ko portzentajearen ageri dira eta gizonezkoa aldiz, %0,59ko portzentajearen ageri dira.

Laugarren eta azken hipotesia, “gizonezkoak gaitasun fisikoetako kiroletan edo aktibitateetan gehiago ageri dira” izena du. Kasu honetan, hipotesia baieztatu egin beharko da. Izan ere, gizonezkoak bakarka %9,41eko portzentajea ageri dira eta emakumezkoak aldiz, %5,88an. Taldeei dagokionez, gizonezkoak, %1,18ko portzentajea ageri dira eta emakumezkoak aldiz, %0,59ko portzentajea.

Datuak kontuan hartuta, hipotesien baieztapena edo ezeztapena laburki bildu dira taula honetan:

Hipotesia	BAI	EZ
Gizonezkoen agerpena emakumezkoena baino nagusiagoa da.	X	
Gizonezkoak talde kiroletan gehiago agertzen dira.	X	
Gizonezkoak emakumezkoak baino gehiagotan ageri dira kirol artistikoetan.	X	
Gizonezkoak gaitasun fisikoetako kiroletan edo jardueretan gehiago ageri dira.	X	

10.taula: 2000.hamarkadako datuetan oinarritutako hipotesien baieztapenen edo ezeztapenen taula.

4.2 Liburuen arteko konparaketa


Aurreko hipotesien baieztapen edo ezeztapeneko tauletan hipotesi bat falta da. Hipotesi hori, hurrengo hau da: “90eko hamarkadan emakumezkoen agerpena urriagoa da 2000. hamarkadako liburuekin alderatuta”. Hipotesi hau baita ere, baieztatu egin beharko da. Izan ere, emakumeak nagusi (talde mistoa emakumezkoak gehiengo kategorian) edota emakumezkoak bakarrik edo taldeka ageri diren portzentajeak gora egiten du 2000.hamarkadako liburuan. Honela, 1990.hamarkadako liburuan, emakumezkoak %21,5 batean ageri dira eta 2000.hamarkadako liburuan aldiz, %23,38 batean.

4.3 Saio praktikotik lortutako datuen emaitzak

Atal honetan, saio praktikotan ateratako argazkiei buruzko ikerketaren emaitzak agertuko dira. Horretarako, lehenik eta behin, argazkiak atera baino lehen sortutako hipotesiak aipatuko dira, geroago hauek baieztatze ala ezeztatze asmoarekin. Hipotesien aipamenaren ostean, argazkietatik lortutako emaitzak ageriko dira grafikoki (ikusi 5.grafikoa eta 6.grafikoa). Azkenik, grafikoetako datuak erabiliko dira hipotesiak baieztatze ala ezeztatze (ikusi 11.taula).

Esan den bezala, analisia egin aurreko hipotesiak aipatuko dira atal honetan. Hona hemen, horiek:

- Emakumezkoen gehiengoa uztaiak erabiliko dituzte.
- Gizonezkoen gehiengoa futboleko baloiak erabiliko dute.
- Emakumezkoen gehiengoa kirol artistikoak eta beste egoera batzuk adieraziko dituzte.
- Gizonezkoen gehiengoa futboleko egoerak adieraziko dituzte.




5.grafikoa: Materialaren analisirako erabilitako grafikoak.

5.grafiko hori, ikasleek saio praktikoan euren eskulturak sortzeko erabili zuten materialaren emaitzak batzen ditu. Ikus daitekeenez, materiala kategoriaren barnean, 6 azpikategoria daude: baloia, badminton erraketa, uztaia, baloia+uztaia, soka eta ezer ere ez. Aldagaiak kasu honetan, neska edo mutila izatea izango da.

24 ikasleetatik (%100) 13 ikasleek (%54,17) eskultura propioa sortzeko materiala baloia izatea erabaki zuten. Hamahiru ikasle horietatik, 12 mutil (%50) eta neska bakarra (%4,17) izanik. Hurrengo azpikategoria, badminton erraketa da, kasu honetan hogeita lau ikasleetatik, soilik 3 ikasleek (%12,5) erabaki zuten material hau hautatzea. Hiru ikasleetatik, 2 mutil (%8,33) eta neska bat (%4,17) izan ziren. Hirugarren azpikategoria, uztaia, 6 ikasleek (%25) erabili zuten, 4 neska (%16,67) eta 2 mutil (%8,33) izanik. Baloia eta uztaia aldi berean erabiltzea soilik

ikasle bakar batek erabili zuen, neska izanik ikasle hau (%4,17). Soka ez zuen inork ere ez erabili eta materialik ez erabiltzea neska batek (%4,17) aukeratu zuen 24 ikasleen artean.

Gorpuztutako eskultura sortzerakoan, aurretik azaldu den bezala, ikasleek egoera bat antzeztu behar zuten. Egoera hori kiroleko edo jarduera fisikozko egoera bat edo beste egoera konkretu edo abstraktua izanda. Hurrengo grafikoa (ikus 6.grafikoa) , egoerarekin du zerikusia.



6.grafikoa: Egoeraren analisirako erabilitako grafikoa

6. grafiko honetan dauden datuak egoeretan oinarritzen da. Egoeraren barnean, bi azpikategoria daude kirolezko edo aktibitate fisikozko egoera sortzea edo beste egoera mota bat sortzea. Gainera, bakoitzaren barnean, beste azpikategoria batzuk daude. Izan ere, kirolezko edo aktibitate fisikozko azpikategorian, lau azpikategoria daude (futbola, saskibaloia, gimnasia erritmikoa eta frisbee jaurtiketa) , beste egoera mota baten barnean, aldiz, 2 azpikategoria daude (egoera konkretua eta egoera abstraktua).

Lehenik eta behin, kirolezko edo aktibitate fisikozko emaitzak aztertuko dira eta gero beste egoera bateko emaitzak. Hogeita lau ikasleetatik, hamaika (%46) ikasleek erabaki dute kirolezko edo aktibitate fisikozko egoera sortzea. 8 ikasleek (%33,17) erabaki zuten futboleko egoera sortzea. Zortzi ikasle horietatik 7 mutil (% 29) eta neska (%4,17) bat izanik. Saskibaloitari dagokionez, ikasle bakarra (%4,17) erabaki zuen kirol horretako egoera sortzea.

Mutila izan zen saskibaloiko egoera hau sortzea erabaki zuena. Gimnasia erritmikoko egoera soil bat (%4,17) sortu zen baita ere. Kasu honetan, neska izan zen egoera hori sortu zuena. Azkenik, ikasle bakarra (%4,17) erabaki zuen frisbee jaurtiketako egoera bat sortzea. Honetan, mutila izan zen egoera hori sortu zuena.

12 ikasleek (%50) erabaki dute beste egoera mota bat sortzea. 6 ikasleek (%25) erabaki dute egoera konkretua sortzea. Horietatik, 4 mutil (%16,67) eta 2 neska (%8,33) izanik. Beste aldetik, 6 ikasleek (%25) erabaki dute egoera abstraktua sortzea. Sei horietatik, 4 neska (%16,67) eta 2 mutil (%8,33) izanik. Hurrengo tauletan materialaren eta egoeren azterketatik lortutako emaitzak batuko dira laburki. Horretarako, ikusi 8. eta 7.taulak.

Materiala	Emakumezkoa	Gizonezkoa
Baloia	%4,17	%50,00
Badminton erraketa	%4,17	%8,33
Uztaia	%16,67	%8,33
Baloia+uztaia	%4,17	%0,00
Soka	%0,00	%0,00
Ezer ere ez	%4,17	%0,00
Guztira	%33,33	%66,67

8.taula: Saio praktikotik lortutako datuen emaitzak laburtzeko taula, materialean oinarrituta.

Egoera	Emakumezkoa	Gizonezkoa	
Kirolezko / Aktibitate fisiko egoera	Futbola	%4,17	%29,00
	Saskibaloia	%0,00	%4,17
	Gimnasia erritmikoa	%4,17	%0,00
	Frisbee jaurtiketa	%0,00	%4,17
Beste egoera bat	Egoera konkretua	%8,33	%16,67
	Egoera abstraktua	%16,67	%8,33
Guztira	%33,33	%66,67	

7.taula: Saio praktikotik lortutako datuen emaitzak laburtzeko taula, egoeran oinarrituta.

Aurreko datuak kontuan izanda, hipotesiak baieztatzea edo ezeztatzea izango da hurrengo pausua. Lehenengo hipotesia , “emakumezkoen gehiengoa uztaiak edo sokak erabiliko

dituzte” izena du. Hipotesi hau baieztatu egingo da, izan ere, nesken %17a ,gehiengoa, uztaiak erabili baitute.

Bigarren hipotesia, “gizonezkoen gehiengoa futboleko baloia erabiliko dute” izena du. Kasu honetan baita ere, hipotesia baieztatu egingo da. Mutilen %50ak baloia erabili baitu.

Hirugarren hipotesia, “emakumezkoen gehiengoa kirol artistikoak eta beste egoera batzuk adieraziko dituzte” izena du. Kasu honetan, hipotesia ezeztatuko da. Izan ere, nesken %4ak soilik kirol artistikoko egoerak adierazi ditu.

Azkeneko hipotesia, “mutilen gehiengoa futboleko egoera adieraziko dituzte” izena du. Kasu honetan baieztatu egingo da. Izan ere, mutilen %29ak , gehiengoa, futboleko egoera adierazi baitu. Azkenik, datu horiek kontuan hartuta, hipotesien baieztapena edo ezeztapena laburki bilduko dira taula honetan:

Hipotesia	BAI	EZ
Emakumezkoen gehiengoa uztaiak edo sokak erabiliko dituzte.	X	
Gizonezkoen gehiengoa futboleko baloia erabiliko dute.	X	
Emakumezkoen gehiengoa kirol artistikoak adieraziko dituzte.		X
Gizonezkoen gehiengoa futboleko egoerak adieraziko dituzte.	X	

11.taula: Saio praktikoko hipotesien baieztapenen edo ezeztapenen taula

5. Emaitzen laburpena

Goiko datuak behin irakurrita, ikerketa aurretik egindako hipotesi gehienak bete egin direla esan behar da. Ikus daitekeenez, 90.hamarkadako liburu baten eta 2000.hamarkadako beste liburuan, gizonezkoen presentzia emakumezkoen presentzia baino nabariagoa da, bai indibidualki, zein genero berdineko taldeetan agertzen direnean edota talde mistoko irudi edo argazkietan. Horretaz gain, 90.hamarkadako liburuan, irudietan ikus daitekeenez, talde kiroletan, gizonezkoen agerpena emakumezkoena baino nagusiagoa da. Aldiz, kirol artistikoak praktikatzan diren agerpen grafikoetan emakumezkoak gizonezkoak baino kopuru handiago baten ageri dira. Azkenik, gizonezkoek gaitasun fisikoetako kiroletan edo jarduera fisikoetan emakumezkoak baino aldi gehiagotan ageri dira.

2000.hamarkadako datuak aztertzerakoan, 90.hamarkadako datuekin zenbait berdintasun daudela ikus daiteke. Izan ere, gizonezkoek talde kiroletako irudietan nagusi izatearen eta gizonezkoak gaitasun fisikoetako kiroletan edo aktibitate fisikoetan nagusi izatearen hipotesia

bete egiten baitira. Hala ere, kirol artistikoak praktikatzen ari diren irudiei dagokionez, emakumezkoen eta gizonezkoen agerpena berdina da, beraz hipotesi hau ezeztatu egin da.

Bestetik, saio praktikoetako aurre hipotesi guztiak bete dira. Izan ere, emakumezkoen gehiengoak uztaiak edo sokak erabili ditu material moduan, gizonezkoen gehiengoak aldiz, futboleko baloia erabili dute. Bestetik, emakumezkoen gehiengoak kirol artistikoak edo beste egoera mota bat sortuko duten hipotesia bete egin da, gehiengoak horietako bat aukeratu baitu. Azkenik, gizonezkoen gehiengoak futboleko egoerak sortuko dituzte hipotesia baita ere bete egin da, gizonezko gehienek egoera mota hori sortu baitute.

6. Ondorioak

Atal honetan, ikerketa honekin lortu nahi ziren helburuak bete diren ala ez azalduko dira. Horretaz gain, emaitza eta hipotesien arteko alderaketa egin ostean lortu diren ondorio orokorrak azalduko dira. Hasteko, Gradu Amaierako Lan honen hasieran, 2.puntuan (Helburuak izena duen puntua) hain zuzen ere, aipatutako helburuak lortu dira. Izan ere, GH-ko testu liburueta irudiekin eta saio praktikoko argazkiekin, irakasleek jaso ditzaketen argazki eta irudiak nolakoak diren eta generozko estereotipoak badituzten ala ez aztertu ahal izan da. Bestetik, erabilitako ikerketa-tresnen bitartez, gizarteko genero estereotipoak testu liburueta eta Gorputz Hezkuntzako saioetan agertzen badiren eta nola agertzen diren baita ere aztertu ahal izan da. Hori dela eta, Heziketa Fisikoko saioetan perspektiba kritikoa lantzearen beharrari buruz hausnartzea posible izan da. Honekin lotuta, ikus kultura ikasteko perspektiba kritikoa erabilgarria baden ala ez aztertu ahal izan da.

Emaitzen eta hipotesien arteko alderaketari dagokionez, gizonezkoek eta emakumezkoek kirol edo jarduera fisiko batzuetan edota beste batzuetan agertzea euren generoaren ondorio bat dela esan daiteke. Izan ere, aurreko datu batzuek, Blandez Ángel et al. -ek (2007) egindako ikerketarekin bat egiten dute. Blández Ángel et al- ek (2007) euren ikerketan adierazten dutenez, gizonezkoek futboleko aritzea da gehien gustatzen zaiena. Ikerketa honetan ikusi denez, gizonezkoen gehiengoak futboleko egoerak sortu dituzte. Beste aldetik, autore horiek euren ikerketan azalarazten duten bezala, emakumezkoak erritmoarekin zerikusia duten jarduerak edo kirolak nahiago dituzte eta lan honetako kasuan ikus daitekeenez, emakumezkoek sortutako eskultura gehienak kirol edo jarduera artistikoekin zerikusia izan dute. Bi ondorio hauekin erlazionatuta, *a priori* emakumezkoentzat eta gizonezkoentzat diren materialak daudela ondorioztatu daiteke. Izan ere, emakumezkoek uztaia erabili dute gehienbat eta gizonezkoek, aldiz, baloia.

Horretaz gain, Blández Ángel et al-ek (2007) aipatutako baieztapen honek adierazten dutena, "las actividades físicas que requieren capacidades de 'fuerza', (...) 'agresivas', o 'de riesgo' (por ejemplo: rugby, fútbol, (...) las vinculan al género masculino. (...) actividades relacionadas con el 'ritmo', (...) (por ejemplo: (...), gimnasia artística vinculan al género femenino", ikerketa honetan egia dela ondorioztatu da. Izan ere, 90.hamarkadako testu liburuan izan ezik, hau da 2000.hamarkadako testu liburuan eta saio praktikoan aurrera eramandako ikerketetan, gizonezkoek indarrarekin eta agresibitatearekin erlazionatutako kirol edo jardueretan eta emakumezkoek, aldiz, erritmoarekin erlazionatutako kirol edo jardueretan ageri direla ikusi da. Horretaz gain, ikerketa honetan, 90.hamarkadako eta 2000.hamarkadako Gorputz Hezkuntzako testu liburuetan gizonezkoek talde kirolak praktikatzen gehiago ageri direla ondorioztatu da. Ondorioztapen honek bat egiten du Moya Mata et al.-ek (2013) egindako ikerketan lortutako emaitzarekin, non, gizonezkoek talde kirolean nagusi zirela agertzen zen.

Bestetik, Rey Cao eta González Palomaresek (2013) egindako ikerketatik lortutako ondorio batekin bat egiten du ikerketa honetan lortutako ondorioztapen batek. Izan ere, bi autore horiek 2013.urtean egindako lanean ondorioztatu zuten, gizonezkoen agerpena emakumezkoena baino nagusiagoa da Gorputz Hezkuntzako liburuetan. Ikerketa honetan, baieztapen hori ondorioztatu da baita ere, bai 90.hamarkadako liburuan zein 2000.hamarkadako liburuan. Gainera, Gradu Amaierako Lan honetan ikusi denez, 90.hamarkadan, emakumezkoen agerpena urriagoa zen gainera.

Ondorio hauek ikusita, ikus kultura irakastea erabilgarria dela esan daiteke. Batez ere, ikusten eta jasotzen den informazio guzti hori irakurtzen eta interpretatzen ikasteko. Ondorioztatu denari erreparatuz, irakasleek ikus kultura irakurtzen jakin behar duten lehenak izan behar direla esan daiteke. Izan ere, ikus kultura irakurri ahal izateko, Freedmanek (2006) esan bezala, laguntza eta norbaiten gidapena behar da, kasu honetan ikaskuntzaren gidariak irakasleak izan beharko dira. Irakaspen honekin, Acasok (2009) aipatutako "vidente crítico" -ak izatea lortuko da. Horretarako baita ere, Gorputz Hezkuntzako saioetan perspektiba kritikoa lantzea lagungarria izan daiteke. Kasu honetan baita ere, Tonucci (1976) (Méndez-Nuñez et al.-ek zitatuta) adierazi bezala, irakasleak, perspektiba honetan oinarritutako pedagogia mota aurrera eraman aurretik, pedagogia mota honetan formatuak egon beharko dira. Gainera, euren modu kritiko batean hausnartu beharko dute euren testuinguru sozio akademikoa, egunerokotasunean jasotzen duten informazioa etab.

Azkenik, ikuspuntu pedagogiko kritiko hori erabiltzea eta ikus kultura irakastea interesgarria izango da curriculum ezkutuaren bitartez transmititzen diren edukiak, hala nola, kirolezko

genero estereotipoak, aztertu ahal izateko eta horren aurrean jarrera kritiko bat adierazi ahal izateko. Honela, bakoitzaren autokontzeptua modu kritiko batean sortuko dela uste da.

7. Hausnarketa eta hobekuntza proposamenak

Atal honetan, emaitzen, lanaren eta prozesuaren inguruko hausnarketa pertsonal laburra agertuko da. Horren ostean, zailtasunak eta hobetzekoak aipatuko dira. Hausnarketarekin hasteko, eta hain zuzen ere emaitzekin hasteko, hauek, aurretik espero zirenak izan direla esan behar da. Izan ere, beste hainbat lanetan irakurritakoaren eta esperientzia propioan bizitakoaren ondorioz, honelako egoera aurkitzea espero zen. Lanari dagokionez, hasi baino lehen uste zen baino askoz zailagoa izan dela esan daiteke, batez ere, izugarrizko lana ematen baitu kalitatezko informazioa aurkitzeak, ikerketa zentzudun bat sortzeak, ikerketarako erabiliko diren tresnak pentsatzea etab. Bukatzeko, GrAL honek iraun duen prozesua pertsonalki eta akademikoki aberatsa izan dela esan daiteke. Izan ere, gai honetan sakontzearekin bat, zenbait eduki berriren (ikus kultura eta perspektiba kritikoa adibidez) berri ikasi dira. Horretaz gain, ikerketa prozesu baten garapenean eman beharreko pausuen inguruan ikasi da. Azkenik, lan honen bitartez, maila pertsonalari dagokionez, egunerokotasuneko konstantzia eta formazio akademikoa ezinbestekoa dela ikasi da.

Behin hausnarketa alde batera utzita, lan honetan izandako zailtasunak aipatuko dira. Lehenik eta behin, zailtasun nagusia ikerketa egiterakoan esperientzia gutxi izatea izan da. Izan ere, gradu honetan ikerketa gutxi egin izan dira eta beraz, nahiko zaila izan da hainbat puntuetan aurrera jarraitzea. Hala nola, argazkiak aukeratzeko irizpideen sorketan, aldagaien sorketan eta datuak antolatzeko taulen sorketan. Bestetik, Heziketa Fisikoari buruz modu orokorrean hitz egiten duten liburuak aurkitzea baita ere oztopo nabaria izan da, izan ere, hainbat iturrietara jo behar izan da baliagarriak ziren testu liburuak lortu ahal izateko. Bestetik, gaur eguneko pandemia dela eta, ikerketa-tresna bezala erabilitako bi liburu horiek aurkezpenean edukitzea ezinezkoa izango da, liburutegiak itxita baitaude. Horrekin batera, liburu horietatik erabilitako argazki zehatzak erakustea ezinezkoa izango da.

Lan honetan, hobetzeko hainbat aspektu daude. Izan ere, bizitzako esparru eta ekintza guztietan hobetzeko aspektuak ukaezinak baitira, beraz, beti egongo da zerbait hobetzeko. Gorputz Hezkuntzako liburuak azken 3 hamarkadakoak izatea hobekuntza proposamen bat izan daiteke. Izan ere, Gorputz Hezkuntzako azken hamarkadako liburua izanik, hamarkada honetako irakasleek jasotzen eta ikusten dituzten irudi eta argazkien nolakotasuna ikertu ahal izango litzateke. Gorputz Hezkuntzako liburuekin jarraituz, ikerketa aberatsagoa izan dadin, hamarkada bakoitzeko liburu bat baino gehiago erabiltzea hobetzeko aspektu bat izan

daiteke. Honela, ahalik eta liburu gehien izango lirateke eta beraz, ikerketa fidagarriagoa izango litzateke. Testu liburuekin jarraituz, bertatik ateratako irudi gehiago lortzeak ikerketa fidagarriagoa egiten du. Gainera, 2000.hamarkadako testu liburuaren kasuan, lanean erabili den irudia beste iturri batetik lortu da. Nahiz eta oso antzekoak izan hemen erabilitakoa eta ikerketarako erabilitakoa, hobe izango zen GrAL honetarako erabili ditudanak erabiltzea. Horretarako, liburuak jaso eta jarraian erabiliko diren irudiei argazki bat ateratzea komenigarria izango litzateke. Hala ere, lehen aipatu den bezala, gaur egungo egoerarekin zenbait arazo izan dira irudi horiek lortzeko.

Generozko rolen edota ikus kulturak sortutako genero rolen azterketari dagokionez, beste ikerketa puntu batzuk aztertzea posible izango litzateke, honela pisu gehiago izango zituzten generozko rolen argudiaketek. Adibidez, testu liburuen azterketan, gizarteak emakumezkoei edota gizonezkoei euren generoa kontuan izanda esleitzen dizkien arropen koloreak aztertzea aukera bat izango litzateke. Bestetik, praktikaldiko saio praktikoan, ikasleen generoaren arabera nolako jokabideak, jarrerak eta emozioak adierazten eta jasotzen dituzten aztertu ahal izango litzateke.

Bukatzeko, laburpen eta hausnarketa pertsonal modura, ikerlan honen helburuak lortzeak eta emaitzek aurretik adierazitako hipotesiak baieztatu izanak asebetetzen nauela esan beharra daukat. Izan ere, egindako lanaren ondorio bat baita. Hala ere, aipatutako hobetu beharrekoak, oztopoak eta zailtasunak irakaspen modura hartzen ditut, hurrengo batean lan honetan lortutako maila hobetu ahal izateko. Bestetik, etorkizuneko Gorputz Hezkuntzako irakasle bezala ikusita, perspektiba kritikoa saio praktikoetan erabilgarria izan daitekeela uste dut. Izan ere, lan honen bitartez ikasleak zentzu kritikoa izan eta curriculum ezkutuaren bitartez transmititzen den horretaz hausnartu ahal dutela ikasi dut. Gainera, ikus kultura perspektiba kritiko horretatik irakastea tresna ezinhobea izan daitekeela uste dut. Izan ere, jasotzen diren irudi eta argazki guztiek daramate ezkutuko mezuren bat eta horiek ikertzen jakitea eta horietatik ondorio kritikoa ateratzea interesgarria izan daiteke. Amaitzeko, etorkizunean irakasle autokritikoa izatearen ardura hartuko dut, nire lanbidea modu konprometituan aritzeko asmoarekin.

8. Bibliografía


- Acaso, M. (2009). *La educación artística no son manualidades*. Catarata.
- Blández Ángel, J., Fernández García, E. eta Sierra Zamorano, M.Á. (2007). Estereotipos de género, actividad física y escuela: La perspectiva del alumnado. *Profesorado. Revista de currículum y formación del profesorado*, 11(2),1-21. <http://hdl.handle.net/10481/17510> -tik berreskuratuta.
- Butler, J. (2006). *Deshacer el género*. Paidós.
- Castillo Sánchez, M., eta Gamboa Araya, R. (2012). Desafíos de la educación en la sociedad actual. *Revista Electrónica Diálogos Educativos*, 12(24), 55-69. <http://revistas.umce.cl/index.php/dialogoseducativos/article/view/1055> -tik berreskuratuta.
- Espinar-Ruiz, E. (2009). Infancia y socialización. Estereotipos de género. *Revista Padres y Maestros* (326),17-21. <https://revistas.comillas.edu/index.php/padresymaestros/article/view/1319/1126>-tik berreskuratuta.
- Eusko Jaurlaritza. (2016). Heziberri 2020. Oinarrizko Hezkuntzako Curriculum: 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea. Hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila: Euskal Herria.
- Eusko Jaurlaritza. Euskadi.eus. 2020ko Ekainaren 2an <https://www.euskadi.eus/informazioa/jarduera-fisikoa-eta-osasuna/web01-a3actfi/eu/>-tik berreskuratuta.
- Fernández Poncela, A. M. (2011). Prejuicios y estereotipos. Refranes, chistes y acertijos, reproductores y transgresores. *Revista de Antropología Experimental*(11), 317-328. <https://revistaselectronicas.ujaen.es/index.php/rae/article/view/1932/1682>-tik berreskuratuta.
- Fraile Aranda, A. (1999). La didáctica de la educación física desde una visión crítica. *Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 2(1), 690-697. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6498078> -tik berreskuratuta.
- Freedman, K. (2006). *Enseñar la cultura visual. Currículum, estética y la vida social del arte*. Octaedro.
- Freire, P. (1970). *Pedagogía del oprimido*. Siglo Veintiuno.
- González Palomares, A., eta Rey Cao, A. (2013). Cultura corporal y estereotipos en las imágenes de libros de texto de Educación Física publicados bajo el periodo de la Ley Orgánica de Educación (LOE). *Ágora para la EF y el deporte*, 15(1), 1-19. <http://uvadoc.uva.es/handle/10324/23751> -tik berreskuratuta.
- González Pineda, J. A., Núñez Pérez, J. C., González Pumariega, S. eta García García, M. S.(1997). Autoconcepto, autoestima y aprendizaje escolar. *Psicothema* 9(2), 271-289. <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=72709204> -tik berreskuratuta.
- Hernández Álvarez, J.L. (2004). Teoría curricular y didáctica de la Educación Física. En A. Fraile (Coord.), *Didáctica de la Educación Física desde una perspectiva crítica y transversal*, 29-60. Biblioteca Nueva.
- López Pastor, V.M., eta Gea Fernández, J. M. (2010). Innovación, discurso y racionalidad en Educación Física. revisión y prospectiva. *Revista Internacional de Medicina y Ciencias de la Actividad Física y del Deporte*, 10(38), 245-270. <http://hdl.handle.net/10486/4631> -tik berreskuratuta.
- McLaren, P. eta Huertas-Charles, L. (2011). Educación pública y formación de profesores: una visión desde la pedagogía crítica revolucionaria. *Innovación Educativa*, 11(57), 225-23. <http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=179422350025> -tik berreskuratuta.
- Méndez-Nuñez, Á., eta Murillo, F.J. (2017). Reivindicando la Labor Intelectual y Transformativa del Profesorado en una Educación para la Justicia Social. *Revista Internacional de Educación para la Justicia Social (RIEJS)*, 6(1), 383-399. <http://dx.doi.org/10.15366/riejs2017.6.1.022> -tik berreskuratuta.

- Mirzoeff, N. (2003). *Una introducción a la cultura visual*. Paidós.
- Moya Mata, I., Ros Ros, C., Bastida Torrónategui, A. eta Menescardi Royuela, C. (2013). Estereotipos de sexo y raza en las imágenes de los libros de texto de educación física en primaria. *Retos. Nuevas tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, (23), 14-18. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4135188> -tik berreskuratuta.
- Panesso Giraldo, K., eta Arango Holguín, M. J. (2017). La autoestima, proceso humano. *Revista Electrónica Psyconex*, 9(14), 1-9. <https://revistas.udea.edu.co/index.php/Psyconex/article/download/328507/20785325> -tik berreskuratuta.
- Revilla Fajardo, J. A. (2013). Una reflexión histórico-genealógica sobre los conceptos de género y sexo. *Enseñanza e investigación en psicología*, 18(1), 5-18. <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=29228948001> -tik berreskuratuta.
- Ruiz Hernández, C. (2014). Hacia una comprobación experimental de la zona de desarrollo próximo de Vigotsky. *Ciencia ergo-sum*, 22(2), 167-171. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5116568> -tik berreskuratuta.
- Ruiz Quiroga, P. M. (2010). El papel del maestro en el aula. *Revista Digital para profesionales de la enseñanza*(10). <https://www.feandalucia.ccoo.es/docuipdf.aspx?d=7499&s=> -tik berreskuratuta.
- Ruiz Ulacia, J. (2015). *Genero rolak eta estereotipoak Lehen Hezkuntzan* (Gradu Amaierako Lana, UPV/EHU). Bilbo. <https://addi.ehu.es/handle/10810/14047>-tik berreskuratuta.
- Sanz González, O. (2013). *Haurren ikus kulturaren irakurketa eta interpretazioa generoaren ikuspegitik* (Gradu Amaierako Lana, UPNA). <https://academica-e.unavarra.es/handle/2454/8209> -tik berreskuratuta.
- Sesento García, L. (2017). Reflexiones sobre la pedagogía de Vigotsky. *Revista Contribuciones a las Ciencias Sociales*. <https://www.eumed.net/rev/cccss/2017/02/vigotsky.html> -tik berreskuratuta.
- Tinning, R. (1992). *Educación física: la escuela y sus profesores*. Universidad de Valencia.
- Torres Santomé, J. (1991). *El currículum oculto*. Morata.
- Torrescusa, L.C., Coterón López, J. eta López, M.A. (1994). *Educación física: libro del profesor: 3er ciclo Educación Primaria*. Edelvives.
- Vizueté Carrizosa, M. eta Villada Hurtado, P. (2006). *Educación física. 6.primaria*. Anaya.
- Würdinger, E. (2017). *Nieve profunda*. (Argazkia). <https://www.erwinwurm.at/artworks/one-minute-sculptures.html>-tik berreskuratuta.

9. Eranskinak

1. Argazkiak eta irudiak

1.1 Saio praktikoa ateratako argazkiak



1. argazkia: "One Minute Sculptures" obraren moldaketa, saio praktikoko argazkiak.


1.2 Erwin Wurm artistaren obra



2. argazkia: Erwin Wurm artistaren obra, "Nieve Profunda" Eva Würdinger (2017).


1.3 Testu liburuetatik lortutako irudiak

1.3.1 1990.hamarkadako liburuaren irudia



1.irudia: 1990.hamarkadako, Educación Física: libro del profesor: 3er Ciclo de Educación Primaria liburutik lortutako irudia

1.3.2 2000.hamarkadako liburuaren irudia



2.irudia: 2000.hamarkadako, Moya Mata et. al-ek erabilitako irudia, Educación Física 5.Ed. Primaria. Tercer Ciclo Anaya (2009) liburutik lortutako irudia.

2. Taulak

2.1 Adierazleak adierazteko taulak

2.1.1 taula: 90.hamarkadako eta 2000.hamarkadako liburuko datuak sailkatzeko adierazleak.

ALDAGAIA	ERAKETA MOTA	ERAKETAREN AZALPENA	KATEGORIA	KATEGORIAREN AZALPENA
Generoa	Banaka	Pertsona bakarra ageri bada	Gizonezkoa	Gizonezkoa dela esango da baldin eta Ruiz Ulacia (2015) eta Sanz González (2013) aipatutako ezaugarriak adierazten baditu. Ile motza izatea.
			Emakumezkoa	Emakumezkoa dela esango da baldin eta Ruiz Ulacia (2015) eta Sanz González (2013) aipatutako ezaugarriak adierazten baditu. Ile luzea izatea.
			Ez da bereizten	Emakumezkoa edo gizonezkoa bada bereizten ez bada
	Genero berdineko taldea	Pertsona bat baino gehiago ageri bada eta pertsona guztiak genero berdinekoak baldin badira	Gizonezkoen taldea	Gizonezkoen taldea dela esango da baldin eta irudiko gizaki guztiak Ruiz Ulacia (2015) eta Sanz González (2013) aipatutako ezaugarriak adierazten baditu. Ile motza izatea
			Emakumezkoen taldea	Emakumezkoen taldea dela esango da baldin eta irudiko gizaki guztiak Ruiz Ulacia (2015) eta Sanz González (2013) aipatutako ezaugarriak adierazten baditu. Ile luzea izatea
			Ez da bereizten	Emakumezkoen edo gizonezkoen talde osoa bada bereizten ez bada
	Talde mistoa	Pertsona bat baino gehiago ageri bada eta bi generoak	Gizonezko gehiago	Gizonezkoak emakumezkoak baino gehiago baldin badira

		desberdintzen baldin badira	Emakumezko gehiago	Emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago baldin badira
			Berdin	Emakumezkoen eta gizonezkoen kopurua berdina baldin bada
			Ez da bereizten	Emakumezkoen edo gizonezkoen kopurua berdina edo desorekatua baldin bada bereizten ez denean
ALDAGAIA		KATEGORIA		AZALPENA
Kirol edo jarduera fisikoaren arabera		Talde kirolak		Kirolean taldeko lankidetzeta eta aurkaritza baldin badago edukiko da kontuan. Adibidez: futbola, errugbia, saskibaloia, volleyball-a, hockey-a
		Bakarkako kirola		Kirolean parte hartzea modu indibidualean, kideen laguntza zuzen barik, ematen bada edukiko da kontuan. Adibidez: atletismo, igeriketa, tenis, gimnasia
		Jarduera edo kirol artistikoa		Gorputza adierazpen artistiko bat gauzatzeko erabiltzen den aktibitate edo kirola. Adibidez: dantza, gorputz adierazpeneko aktibitateak, gimnasia erritmikoa, ballet
		Fitness edo egoera fisikoko jarduera		Abiadura, indarra, malgutasuna edo erresistentzia hobetzea helburu duten aktibitateak. Adibidez: korrika egitea, muskulaziozko aktibitateak, luzaketak
		Naturako Abenturazko Aktibitate Fisikoak (NAAF)		trekking, mendi-ibiltaritza, puenting, mendi-bizikleta
		Gorputz eskema sortzeko jarduera		Besteen eragin barik

	psikomotorrak	egin daitezkeen eta bakoitzaren gorputza ezagutzeko balio dituzten aktibitateak. Adibidez: artikulazioen mugimenduak ezagutzeko aktibitateak, erlaxazioa
	Materiala manipulatzeko jarduerak	Puxikak, pilotak, palak etab manipulatzeko egiten diren aktibitateak
	Beste bat	Aurreko kategorietan barne ez dauden beste guztiak

1.taula: Liburuetatik lortutako irudiak sailkatzeko adierazleak.

ALDAGAIA	KATEGORIA	AZALPENA
Generoa	Gizonezkoa	Gizonezkoa dela esango da baldin eta Ruiz Ulacia (2015) eta Sanz González (2013) aipatutako ezaugarriak adierazten baditu. Ile motza izatea
	Emakumezkoa	Emakumezkoa dela esango da baldin eta Ruiz Ulacia (2015) eta Sanz González (2013) aipatutako ezaugarriak adierazten baditu. Ile luzea izatea
Materiala	Baloia	Eskultura sortzean baloia erabiltzen badu
	Badminton erraketa	Eskultura sortzean badminton erraketa erabiltzen badu
	Baloia + uzaia	Eskultura sortzean baloia + uzaia erabiltzen badu
	Soka	Eskultura sortzean soka erabiltzen badu
	Ezer ere ez	Eskultura sortzean ezer ere ez badu erabiltzen
Egoera	Kirolezko / Jarduera fisikozko egoera	Eskultura sortzean kirol edo aktibitate fisiko bat antzeman badaiteke eta ikasleak txantiloian kirolezko/aktibitate fisikozko atalean sailkatu baldin badu bere eskultura. Adibidez: futbolezko egoera, saskibaloiko egoera, badmintoneko egoera, gimnasia erritmikoko egoera, frisbee jaurtiketa..
	Egoera konkretua	Eskultura sortzean egunerokotasunean eman daitezkeen egoera bat sortzen badu eta ikasleak txantiloian egoera konkretuko atalean sailkatu baldin badu bere eskultura. Adibidez: sukaldatu, egunkaria irakurri, norbait agurtu...
	Egoera abstraktua	Eskultura sortzean egunerokotasunean ematen ez den eta ulertezina edo interpretazio anitzekoa den egoera bat sortzen badu eta ikasleak txantiloian egoera abstraktuko atalean sailkatu baldin badu bere eskultura..

2.taula: Saio praktikoan ateratako argazkiak sailkatzeko adierazleak.

2.2 Emaitzen laburpeneko taulak

2.2.1 Liburuetatik lortutako datuen emaitzak laburtzeko taulak

2.2.1.1 90. hamarkadako datuak

	Talde kirola	Bakar kako kirola	Fitness edo egoera fisikoa	NAAF	Jarduera psikomot orrak	Manipulatz en ikasteko jarduerak	Jarduera edo kirol artistikoa	Beste batzuk	Guztira
Emakumezkoa	%1,36	%0,00	%2,73	%0,00	%0,45	%0,45	%5,00	%1,82	%11,18
Gizonezkoa	%3,64	%0,00	%5,45	%0,00	%0,00	%0,45	%5,00	%2,73	%17,27
Gizonezkoen taldea	%0,91	%0,00	%1,82	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%2,73
Emakumezkoen taldea	%0,00	%0,00	%0,45	%0,00	%0,00	%0,45	%0,45	%0,00	%1,35
Talde mixtoa	%22,73	%1,36	%9,55	%4,55	%0,45	%4,09	%15,45	%7,73	%65,91
Ez da bereizten	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,91	%0,91
Guztira	%28,64	%1,36	%20,00	%4,55	%0,91	%5,45	%25,91	%13,18	%100

3.taula: 90. hamarkadako testu liburutik lortutako datuen emaitzak laburtuta, kirol edo jarduera fisikoan oinarrituta.

Eraketa mota	Kategoria	Portzentajea
Banaka	Gizonezkoa	%17,05
	Emakumezkoa	%11,52
	Ez da bereizten	%0,92
Genero berdineko taldea	Gizonezkoen taldea	%2,30
	Emakumezkoen taldea	%0,92
	Ez da bereizten	%0,00
Talde mixtoa	Gizonezko gehiago	%15,21
	Emakumezko gehiago	%10,60
	Berdin	%31,80
	Ez da bereizten	%9,68
Guztira		%100

4.taula: 90.hamarkadako liburutik lortutako datuen emaitzen laburpena, generoan oinarrituta.

2.2.1.2 2000.hamarkadako datuak

	Talde kirola	Bakarkako kirola	Fitness edo egoera fisikoa	NAAF	Jarduera psikomotorra	Manipulatzen ikasteko jarduera	Jarduera edo kirol artistikoa	Beste batzuk	Guztira
Emakumezkoa	%1,76	%1,18	%5,88	%0,59	%5,29	%2,35	%1,18	%0,00	%18,23
Gizonezkoa	%2,94	%2,94	%9,41	%0,59	%7,06	%1,76	%0,59	%0,00	%25,29
Gizonezkoen taldea	%1,18	%0,00	%1,18	%0,59	%0,00	%0,00	%0,59	%0,00	%3,54
Emakumezkoen taldea	%0,00	%0,00	%0,59	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,59
Talde mistoa	%11,76	%0,00	%12,94	%7,06	%0,00	%6,47	%9,41	%4,12	%51,76
Ez da bereizten	%0,00	%0,00	%0,59	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,59
Guztira	%17,64	%4,12	%30,59	%8,82	%12,35	%10,59	%11,76	%4,12	%100

5.taula: 2000. hamarkadako liburutik lortutako datuen emaitzak laburtuta, kirol, edo jarduera fisikoan oinarrituta.

Eraketa mota	Kategoria	Portzentajea
Banaka	Gizonezkoa	%27,50
	Emakumezkoa	%18,75
	Ez da bereizten	%1,25
Genero berdineko taldea	Gizonezkoen taldea	%3,75
	Emakumezkoen taldea	%0,63
	Ez da bereizten	%0,00
Taldea mistoa	Gizonezko gehiago	%18,75
	Emakumezko gehiago	%5,00
	Berdin	%24,38
	Ez da bereizten	%0,00
Guztira		%100

6.taula: 2000. hamarkadako liburutik lortutako datuen emaitzak laburtuta, generoan oinarrituta.

2.2.2 Saio praktikotik lortutako datuen emaitzak laburtzeko taulak

Egoera		Emakumezkoa	Gizonezkoa
Kirolezko / Aktibitate fisiko egoera	Futbola	%4,17	%29,00
	Saskibaloia	%0,00	%4,17
	Gimnasia erritmikoa	%4,17	%0,00
	Frisbee jaurtiketa	%0,00	%4,17
Beste egoera bat	Egoera konkretua	%8,33	%16,67
	Egoera abstraktua	%16,67	%8,33
Guztira		%33,33	%66,67

7.taula: Saio praktikotik lortutako datuen emaitzak laburtzeko taula, egoeran oinarrituta.

Materiala	Emakumezkoa	Gizonezkoa
Baloia	%4,17	%50,00
Badminton erraketa	%4,17	%8,33
Uztaia	%16,67	%8,33
Baloia+uztaia	%4,17	%0,00
Soka	%0,00	%0,00
Ezer ere ez	%4,17	%0,00
Guztira	%33,33	%66,67

8.taula: Saio praktikotik lortutako datuen emaitzak laburtzeko taula, materialean oinarrituta.

2.3 Hipotesiak baieztatzeko edo ezeztatzeko taulak

Hipotesia	BAI	EZ
Gizonezkoen agerpena emakumezkoena baino nagusiagoa da.	X	
Gizonezkoak talde kiroletan gehiago agertzen dira.	X	
Emakumezkoak gizonekoak baino gehiagotan ageri dira kirol artistikoetan.		X
Gizonezkoak gaitasun fisikoetako kiroletan edo jardueretan gehiago ageri dira.	X	

9.taula: 90.hamarkadako datuetan oinarritutako hipotesien baieztapenen edo ezeztapenen taula.

Hipotesia	BAI	EZ
Gizonezkoen agerpena emakumezkoena baino nagusiagoa da.	X	
Gizonezkoak talde kiroletan gehiago agertzen dira.	X	
Gizonezkoak emakumezkoak baino gehiagotan ageri dira kirol artistikoetan.	X	
Gizonezkoak gaitasun fisikoetako kiroletan edo jardueretan gehiago ageri dira.	X	

10.taula: 2000.hamarkadako datuetan oinarritutako hipotesien baieztapenen edo ezeztapenen taula.

Hipotesia	BAI	EZ
Emakumezkoen gehiengoa uztaiak edo sokak erabiliko dituzte.	X	
Gizonezkoen gehiengoa futboleko baloiak erabiliko dute.	X	
Emakumezkoen gehiengoa kirol artistikoak adieraziko dituzte.		X
Gizonezkoen gehiengoa futboleko egoerak adieraziko dituzte.	X	


11.taula: Saio praktikoko hipotesien baieztapenen edo ezeztapenen taula.

3. Grafikoak

3.1 Liburuaren analisirako erabilitako grafikoak


3.1.1 Generoaren analisirako erabilitako grafikoak

3.1.1.1 90.hamarkadako liburuako datuetako analisia, generoan oinarrituta



1.grafikoa: 90.hamarkadako testu liburuaren datuetako emaitzak grafikoki, generoan oinarrituta.


3.1.1.2 2000.hamarkadako liburuaren datuetako analisia, generoan oinarrituta.



2.grafikoa: 2000.hamarkadako testu liburuaren datuetako emaitzak grafikoki, generoan oinarrituta.


3.1.2 Kirol / jarduera fisikoko egoeratarako erabilitako grafikoak

3.1.2.1 90.hamarkadako liburuaren datuetako analisia, kirol / jarduera fisikoko egoeretan oinarrituta



3.grafikoa: 90.hamarkadako testu liburuaren datuetako emaitzak grafikoki, kirol, edo jarduera fisikoko egoeretan oinarrituta.


3.1.2.2 2000.hamarkadako liburuaren datuetako analisia, kirol / jarduera fisikoko egoeretan oinarrituta.



4.grafikoa: 2000.hamarkadako testu liburuaren datuetako emaitzak grafikoki, kirol edo jarduera fisikoko egoeretan oinarrituta.


3.2 Saio praktikoko analisirako erabilitako grafikoak

3.2.1 Materialaren analisirako erabilitako grafikoak



5.grafikoa: Materialaren analisirako erabilitako grafikoak

3.2.2 Egoeraren analisirako erabilitako grafikoak



6.grafikoa: Egoeraren analisirako erabilitako grafikoak.

4. Saio praktikorako erabilitako txantiloia

Egoera motak:

1. Kirolezko / Aktibitate fisikoetako egoerak (saskibaloia, tenis-a, gimnasia erritmikoa...)
2. Beste egoera bat
 - 2.1 Egoera konkretua (norbaiti deitu, eskailerak igo, agurtu...)
 - 2.2 Egoera abstraktua

*Kirol edo jarduera fisikoetako egoera bada, zehaztasunetan adierazi zein den kirol hori.

IZENA	EGOERA MOTA	ZEHAZTAZUNAK
1-		
2-		
3-		
4-		
5-		
6-		
7-		
8-		
9-		
10-		
11-		
12-		
13-		
14-		
15-		
16-		
17-		
18-		
19-		
20-		
21-		
22-		
23-		
24-		

1.txantiloia: Saio praktikoan erabilitako txantiloia